

# “Gernika kutun”, São Paulo-ko Euskal Etxea

(“Gernika kutun” the Basque House in São Paulo)

Ugartetxea Arrieta, Arantxa  
Eusko Ikaskuntza  
Miramar Jauregia. Miraconcha, 48  
20007 Donostia

BIBLID [1136-6834 (1998), 25; 385-413]

---

*“Gernika Kutun”, São Pauloko (Brasil) Euskal etxearen istorioa da idazlan honetan agertu nahi dudana; gertakisun honen bilakabideak daramatzen ezaugarriak azpimarraturik nolabait. “Eusko Alkartasunaren” elkartepean sortutakoa; bere helburua, iharduera, kokamena, eta etorkisuna nabarmentzen ditut batez ere. Azken batean, Euskaditik atzerriratutakoen multzo handiaren partaideak gertatzen direlarik.*

*Giltz-Hitzak: Euskal Etxea.*

*Es la historia de “Gernika Kutun” el Euskal etxea (casa vasca) de São Paulo (Brasil), lo que quiero expresar en este trabajo. Resaltar de alguna manera, las características que conlleva el proceso: su creación bajo la protección de la asociación denominada “Eusko Alkartasuna” (solidaridad vasca); su finalidad, actividad, ubicación y futuro; son los aspectos subrayados. Siendo finalmente partícipe del gran conjunto que forman los vascos de la diáspora.*

*Palabras Clave: Casa Vasca.*

*C'est l'histoire de “Gernika Kutun”, l'Euskal etxea (Maison Basque) de São Paulo (Brésil) que je souhaite présenter dans ce travail. Il s'agit de mettre en relief les caractéristiques que comporte tout le processus: sa création sous la protection de l'association appelée “Eusko Alkartasuna” (Solidarité Basque), son but, ses activités, son emplacement et son avenir constituant les aspects abordés tout en montrant sa participation au grand ensemble formé par les Basques de la diaspora.*

*Mots Clés: Maison Basque.*

*Meu objetivo neste trabalho é contar a história de “Gernika Kutun” el Euskal etxea (Casa Basca) de São Paulo (Brasil). Assim, pretendo enfatizar de alguma maneira as características de todo o processo: a criação sob a proteção da associação denominada “Eusko Alkartasuna” (solidaridade basca), sua finalidade, atividade, localização e futuro serão os aspectos sublinhados. Fazendo, portanto, parte do grande conjunto que os bascos da diáspora formam.*

*Palavras Clave: Casa Basca.*

## HITZ BI

Gernika Kutun-eko kondairaren zehaztasun hauek, São Paulon igarotako zortzi urtetan bizitutako ondorio idatziak dira; han dastatutakoak iganderoko harremanetan; entzundako istorioak; brasildar kulturaren abegikotasun begirunegarria eta zenbait eskutitz eta dokumentazioen irakurketak, sortu dit gogoan hau dena laburbiltzeko hitz idatzi hauetan, São Pauloko euskaldunen haztarna miresgarriak iruditzen zaizkidalako ni tartetan nagoelarik.

Erabilitako dokumentazioa Eusko Jaurlaritzaren eskuetan dago gaur egun; zenbait eskutitz, Joxerramonek Brasildik etorritakoan, beraien eskuetan jarri zituen, gero "Abertzaletasunaren Agiritegian" [Fundación Sabino Arana; Meñaka Jauregia; Artea (Arratia-Bizkaia)] kokatuak izanaz; beste batzuk "Federación Internacional de Pelota Vasca"-n daude [Palacio Urdanibia; apart.correos 468; Irun 20.300 Gipuzkoa] pilotarekin zer ikusia dutenak hain zuzen; eta gaur egun zehaztasun guztiak "Euskal Etxea" nortasun juridiko barruan onartua izan denez, "Eusko Jaurlaritzak" zaintzen ditu: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian (Navarra kalean 2- Gasteiz).

Badira ere hemen aipatu gabeko pertsonak, Gernika Kutuneko partaide eta bultzatzaileak izan direnak, danei esker gaur arte jarraitzen dugu, horregatik "Eusko Alkartasunetik" igaro diren guztiei eskaintzen dizkiet hitz idatzi hauek. Urruntasunak ematen duen argitasun bereziaren laguntzaz, eta bizirik dagoen oroimen -saudades- betetako hunkipen xamurrekin idatzitakoa da.

*Arantxa Ugartetxea*  
Donostian 1.996 ko udaran

## SARRERA

Badago gure artean bentura hitza erabiltzearen ohitura eta, Ameriketara edo beste leku batetara joan garenon arazo sakonetako bat bezala, agertzen dena. Badirudi euskaldunon artean bentura hunkipen hori gure arbasoengandik datorkigula ere, euskal istorioetan hainbat bider azaltzen dena, gure endaren benturazale jeinuaren oihartzunak eraman gaituela berriz ere itsasoa zeharkatzera dirudi. Baina denok ezin gara izan Urdanetak, Elkanok e.a. horregatik atzerriratuei gure egoera zehaztean onartu behar zaigu, nondik norako ibilbide honetan gauza askok dutela zer ikusia denen artean egoera edo izate psikologiko orokor bat gertatzen delarik. Bentura jeinuaren ondorioz bakarrik dabilen ibiltaria, gehienetan atorrante bat bihurtzen da, behar beharrezkoa denez nondik nora honetan oinarriak eta helburuak, tartekoak direla bidean, nahiko garbi edukitzea.

Egoera berezi eta orokortasunean bizitzen den gertaera bat da, atzerriratze erabaki honetan dagoena, pertsona osorik baldintzatzen duena eta, osotasun honen ezaugarri batzuk azpimarratzera noa.

Arazo eta ezinegonak pilatzen direnean loturak puzkatu nahi izaten dira eta ibilbide berriak urratzeko gogoak sortzen dira. Pierre Loti-k bere "Ramuntxo" elaberrian eredu tankerara agertzen ditu, eta egoera honi "Ramuntxoren konplexua" ere deritzen zaio. Errealitate berriaren ikutuarekin bilakabide berri baten barruan bizitzen da, askotan ikuspegi irekiagoaz jabeturik, eritzi aurrerakoiagoak defendatzera iraganaz inoiz lehen bizitutakoak, itomen loturak apurtzen dira eta era lasaiagoan bizi ere bai, bakoitzak jasaten dituen ezineramanak galtzen dira, neurri batean, egoera berri honek daraman itxaropena eta ibilbide hori bizitzeko eman behar diren urrats berriak biziartzen duten indarraren ondorioz. Egin beharrak eta

aurrera jarraitu beharrak, sortzen diren zalantzak eta ulertezinak, gainditzen laguntzen du askotan, eta bilakabide berak daraman burrundara honetan murgiltzeak dakar, eskeptizismoaren uretan ez erortzea. Egitea bait da eskeptizismoaren antidoto hobereena. Ekintzaren bidez lur berrietan sustraitzen joaten da, egoera eta bizi berri bat eraikiz, lotura berriak dira, norberarenganaten joan diren bizi zati berriak eraikitakoak, istorio zati berri baten ahaleginak bakoitzaren nortasunaren osakuntzan, lur berria izatetik, bakoitzaren zati berezia izatea igarotzera iritxiz. Horregatik atzerriratuen nortasun egoera ikuspuntu orekatu batetik aztertzeke, ezin da, “joan zen haren” oroimen bakarraz egin, baizik, “nor denaren” lur aberatsean oinarrituriko istorio zehatz batetan.

Atzerriratutako euskaldun izaera edo nortasun barruan, dialektikotasunaren haztarna garbia dago. Zenbait hunkipen sakonak egoera dialektiko batean bizitzen dira egunerokotasunean. kontrastasan zoragarriak gertatzen direlarik: alde batetik (euskaldun gehienok) moldaketaren bilakabidea bizitzen dugu eta bestetik, itzultzearen gogoan jarraitzen dugu. Baina tokatzen zaigun unean, ere, praktikotasunaren zentzuari jarraituz, egiteari jotzen zaio behar diren laguntzak batuz. Era honetan sortzen dira elkarteak, laguntza eta kidetasunaren ondorio bat dira elkartzearen beharrak sortutako zenbait elkarte atzerrian. Horrela ba moldaketa egoera bereziaren ondorio zuzen bat: elkartzea da.

Eta berriro dialektikotasunaren ildoan jarraituz, era berean, baita ere hedatzea. Bakoitzaren nazionala, ez da elkartze gogoan mugatuta geratzen, bat batean zabaltzeari egiten dio, benetazko bakoitzaren nazionala baldin bada. azaleko zenbait adierazpen nazionalak aldera utziz eta lur berrira moldatzeak daramazkien adierazpen berriak norberenganatuz. Zorionezko egoera aberasgarria gertatzen da, alde batetik, euskal bakoitzaren nazionala sakontasunean indartzen den araberan, lur berriak aurkezten duen egoera berrira hedatzen joaten da.

‘... En Brasil los pocos vascos que había fueron suficientes como para crear una sociedad vasca -Euskaldunak Orok Bat- muy relacionada con las sociedades de Montevideo ...’<sup>1</sup>.

Honek denak zer ikusi handia du bakoitzaren sortzaile eta eratzaitetasunarekin, hau da: ekimenarekin, eta badirudi bakoitzaren herriarekin azaleko lotura puzkatze honek askoengan beste zenbait indar argitzen dituela ohikeriatik at; alde batetik beldurra gainditzen ikasten da, aurreritziak errazago bazterten dira, arrizkuan bizitzen ere ohitutzen da askotan, azken ondorio bezala, saiatsugaia bihurtuz.

Euskadiko sistema politikoaren jauntxokeriak herritar asko atzerriratu ditu baita ere, bai gizarte egoera jasanezinagatik edo gudak ipinitako ezin eramanezko zapalguntzagatik. Lehenengoari begiratuz, lurraren jabegoak ekarri dituen ondorioak, maizterrearekin edukitako harreman eztabaidagarriak, e.a.; bigarrenari dagokionez jakinak dira zenbat arazo biltzen diren egoera larri honetan, azken batean lur berri batek aukera berri eta lasaiago bat aurkezten duelarik. Dena dela ezinean aukeratutako erabaki hauek, askatzaileak bihurtzen dira azken batean, orain arte esandakoari amore emanaz.

Eta... kondaira orokorretik São Pauloko euskaldunen historiara itzultzerakoan, kondaira zehatz baten bilakabidearekin aurkitzen gara, hau da: herri baten izan nahiarekin; herriko seme baten izan nahiarekin, eta; denbora eta nahiak, ernalduek eta haragitzen direla. ATA DE FUNDAÇÃO DA EUSKO ALKARTASUNA DE SAO PAULO- k horrela dio: “Aos tres días do mes

---

1. America y los vascos 1492-1992; 201.or.

*de março de mil novecentos e sessenta e três, às quinze horas, reuniram-se na chácara Gernika Kutun, em Santo Amaro, nesta cidade de São Paulo, os Srs ...”*

Gizaki eta gizarte batek, berari dagokion kondairaz ohartzen denean eta hauetaz arduratzen denean, herrian gertatzen den eznorabidetaz jabeturik, dagozkion ezaugarri osasuntsu berezien baieztapena aldarrikatzen du, izateko era eskuratu nahian... Eta hau egiten duenean, kondairaren ildo barruan egiten du, denbora zehatz batetan, une berezi hori, lehena oraina eta geroaren ahalmenak ematen dion indar sortzailearekin, une miresgarria bihurtuz. São Pauloko “Eusko Alkartasunaren” sorrerak, euskal bizitzeko eraren ahalegina nabarmentzen du, herri baten izan nahia; hau oso garbi agertzen da elkarreak duen helburuan: “... *Com objetivo de promover atividades culturais, beneficentes, esportivas o educacionais ...*” Ekintza herrikoietaz ari gara, herriak bizi eta eratu egiten dituen ekintzak dira, hortarako elkarre bereziaz baliaturik: “... *à denominação da associação que se fundava tendo afinal sido aprovada por unanimidade a denominação “EUSKO ALKARTASUNA DE SÃO PAULO ...”* Elkartu, bildu, batu, elkar ulertu, goxatu, lagundu; kidesasuna eta anaitasuna adierazten du “alkartasuna” hitzak. Indar guztiak batu beharrean aurkitzen dira, nahiak eta gogoak ahalmen legalaren babespean, bideratzearen. Herri izaera gizarteak bizitzen dituen egituretan errepikatuz: Lehendakaria, lehendakari orde; idazkaria ... “... *Sr. Antonio Vergareche compos a Diretoria que ficou assim constituída: PRESIDENTE Jose Antonio Vergareche; VICE PRESIDENTE: José Ramón Zubizarreta; 1º SECRETARIO: Dora Lucia Alberdi; 2º SECRETARIO: Miguel Zelaya ...*” Eta azken batean arauak, sortutako elkarrearen bide irekiak eta nolabaiteko mugak adierazten dituenak, ekintza zehatz guztiak berezkoak dituztenak, denborari lotutako gizakiaz osatutako gizartearen bizi garenez. “... *A seguir, o Sr. Presidente salientou que já havia sido preparado o projeto dos Estatutos, que passou a ser discutido. Com algumas emendas e alterações foi o mesmo aprovado ...*” São Pauloko gizartearen kondairan, Euskal Herria kondairaren une berezi eta egiazkoa, legepean bizituz.

Ekintza guztiak izaten dituzte bere pertsonak eta honek ere badu, batek bakarrik ezin deza ke dena egin baina talde guztiak izaten dituzte beren akuilugarriak, bultzatzaileak, nolabaiteko argitasun indartsua dutenak eta hau: José Ramón de Zubizarreta Oteiza da “Eusko Alkartasuneko” eremuan. Algortan jaioa 1913. urtean Abustuko 31ean, Pilar Oteiza eta Fructuoso de Zubizarretaren semea (bigarrena), sortzi semealaben tartean; etxegintzailea (bere bizimodua hau izanik), baina batez ere abertzalea, eta abertzaletasunean gehiago izateko bideak beti urratzen dabilen den horietako bat. Jose Antonio Agirre-ri entzun ondoren E.A.J.-P.N.V-en kokatzen da 1931. urtean eta alderdiaren alde joko du bere bizi guztian, gaur arte. Abertzaletasun iturrietatik beti edaten, badirudi gauza bakar bat dagoela beti bere buruan: Euskadi askatu bat, Euskadi euskalduna. Euskadi eta euskera dira Joxerramonen izan nahiak. Honek eramaten du gudari izatera eta frankismopean zigorra jasatzera. Naiz eta euskera ez jakin, São Paulon bizi den urteetan euskera ikasten du (36 urte igaro ditu Brasilen, 1953ean joan zen) bere ikasbide bereziaz baliaturik: Isaac Lopez Mendizabalen hiztegiak, zenbait abestiaz Gereño ikasbideaz, Argia aldizkariak, e.a.... tresna baliagarriak baliaturik, bere erara, bere denborara, bere nahietara eta batez ere bere euskaldun izatearen gogoetara lotuta. Donostian 1982. urtean, Arantxa Ugartetxea Arrietarekin ezkontzen da, andereñoa (idazten ari dena), donostiarrak izatez, baina ego Ameriketara bizitua baita ere (Chile eta Colombian), eta biak berriro São Paulora itzultzen dira urte berean, berriro 1990 Donostiara itzuliz. Abeslaria ere bada, tenorea, opera kantatu duena, 1942. urtean Urriaren 12an “Concurso del Cantante desconocido” eratu zen Bilbon (Teatro Buenos Aires) eta, bera, izan zen txapeldu txalo eta “aupa gudari” ohi tartean, benetan zoragarria!... Franco-ren aurrean abestera deitua izan zen baina ez zen joan, baita ere beka bat ordaindu nahi izan zioten Milanen baina pasaporteak ukatu zioten bere abertzaletasunagatik. Euskeraz abesten saitu da beti, eta erdarazko abestiak euskaratzen.

Brasilek eta zuzenki São Paulok eman zion gogoeta guztiak ekintza baten bidez bideratzeko aukera, hau da :“Eusko Alkartasuna” gaur egun “Gernika Kutun” euskal etxean kokatua. Ez daude euskaldun asko São Paulon bainan daudenei eta bere indarra tresna ezin hobea izan delarik, nahiko txinpartak ateratakoea da, brasildar gizarte ireki eta abegikorren barruan, “Gernika Kutun” taldeko egin eta izan nahiari.

Ikus daiteke gertatutakoak ongi kokatzen direla esandako giro ekintzakorrean, izatearen dialektikotasunean, bakoitzaren nazionalean, elkartzeko egarrian, politikotasunean, euskaldun eta euskaltzale baten gairikotasunean; hauek denak, Brasil lur berrian poliki, poliki, haragitzen joaten direlarik, moldaketa eta abegitasunaren ahalmen zoragarriari esker, São Pauloko euskaldunon ibilaldiak, eznorabidean eginiko bidaldiak izan beharrean, benetazko “bide egin” nahiak izan direla.

## “EUSKO ALKARTASUNA” EZ DA ELKARTE ALDERDIKARIA ETA HESITUA

### Elkartea

Elkartu baino lehen egin beharreko joan etorriak izan ziren lehenengo urratsak, elkarrenganarekiko ezagutza lortu arte, eta ibilbide hau tartean delarik azken batean 1957. urtean irailaren 7an, São Pauloko, José Eizagirre eta Luis Izquierdo-ren, Aisola lantegiko bailan, heme-retzi bat lagun elkartzen dira, eta “Eusko Alkartasuna” elkartearen izen eta izatea onartzen dira. Lehendakaria: Zubizarreta’tar J.E.; idazkaria: Tolosa; eta diruzaina: Ricardo Matesanz; izendatuak izanaz. Bilera honetan parte hartutakoek izenak hauek dira: Eizagirre, Izquierdo, Zelaia M., Tolosa, Garaizabal P., Alberdi J., Laskurain V., Azurmendi, Goialde J., Agote Tx., Jaio G., Lopez Zarate, Rekalde B., Ezkiogo J., Fernandez J., Artigas A., Arresegor J., Santurtun E., eta Zubizarreta.

Honen ondorio lehena, lekuaren beharra da eta hontan saiatzen diren bitartean, bai “Piper” oinetako lantegian (Vicente Moreno eta Crucita bere emaztearena; biak Cervera del Rio Alama-koak) edo Ignacio Beotegi Inza (Valle de Trapaga araneko bizkaitarra) eta bere emaztea Mari Cruz Corres-en (Arbulo-koa, Arabarra) etxean, eta baita ere São Pauloko “Katalan Elkartegian”, biltzen dira.

Hara eta hona, han eta hemen bilduz amestutakoak izatera irixten dira poliki poliki; gogoak eta euskal txokoaren beharrak ez ditu, baina, ikuspegi zabalak mugatzen. Bakoitzak daraman herri zatiaren baieztapena, egoera askotarikoaren gunean gertatzen den zerbait da, bakoitzaren nortasuna agertzen delarik, bai pertsona eta enda bezala, honek inongo itxitasunik azaldugabe. Honela ba aho batez eta idatzia utzi nahirik, Estatutuen lehenengo atala argi eta garbi azaltzen zaigu: *“Art., 1º.- A Eusko Alkartasuna de São Paulo é uma associação sem fins lucrativos ou políticos, com sede e foro na Capital do Estado de São Paulo, constituída por número ilimitado de sócios sem distinção de nacionalidade, religião ou raça”.*

### Ekonomia eta arauak

Euskal etxearen eraikuntzak diruaren beharra nabarmentzen du, lehenengo eta bat kokapen fisikoaren autaketa eginez gero. Badirudi Vicente Murua Etxeberriak egunkarian irakurritako leku baten iragarkia aurkeztu zuela taldean, eta hauetariko batzuk ikusi eta aztertu ondoren baiezkoea erabaki zela.

Leku egokia benetan zirudien, pixka bat bakartia baina erraz irixtekoa bai autobusez

(gutxik zeukaten kotxerik garai hartan), autoz edo motorrez; zuhaitzez inguraturik eta aurreko aldean zingira eder eta zabal bat zuelarik, behin baino gehiagotan “Eusko Alkartasuneko” bazkide eta adizkideek, elkarteak eskuratutako txalupa batean, “kaiku” izeneko hain zuzen, zeharkatutakoa.

Patrikan eskua sartu eta bakoitzak bere eskaintza egiteko ordua iritxi zen, ez ziren diru dunak gehiengoak, nahi eta ezinaren biztanleak baizik; 342.000 cruzeiro lortu ziren, baina 400.000 gehi zerga, behar zirelarik, 110.000 cruzeiro José María Sanz Navarro-k mailegatu zituen eta José Ramón de Zubizarretak 20.000, gerora, elkarte indartuagoa egoterakoan, jasotzeko asmoekin, biak noski. Dirua eskuetan, lehen bait lehen eskritura publikoa egin zen hauen izenean: José Ramón de Zubizarreta; Miguel Zelaya Zubizarreta, eta bere emaztea Milagros Vazquez; José Antonio Vergareche eta bere emaztea Victoria Maitre Jean; Ignacio Beotegui Inza eta bere emaztea María Cruz Corres Perez de San Ramon; José María Sanz Navarro eta bere emaztea Hermenegilda Velasco Matute; Vicente Murua Echeverria eta bere emaztea María Dolores Iñarra Orcaizaguirre; Pedro Jayo Bernedo eta bere emaztea María Madalena Pita Jayo.

Oraindik “Eusko Alkartasuna” elkarte ofizializatu gabe zegoen eta hauek hartu zuten bere gain lokalaren ardura; gero 1963. urtean elkarteak bere nortasun juridikoa lortzen du eta orduan erabateko eskritura ere, “Gernika Kutun” eusko etxea, São Pauloko “Eusko Alkartasuna” ren izen eta nagusipean geratzen delarik.

José Ramón de Zubizarreta izan zen proiektuaren arduraduna eta egile, besteen laguntzarekin noski. Lekuaren neurriak: 43,20 mt. aurrean; 46,47 mt. sakonean; edo 2.094,00 mt.karratuak. Barruan bi etxetxo daude, bat atezainarena etxebizitza hain zuzen eta bestea elkarrieden topalekua, sukalde eta egongela dituela; igeri lekua eta frontoia; eta gizonetako eta emakumezko aldagelak edo komunak.

Arauk beharrezkoak jotzen dira hemendik aurrera eta 1963. urtean martxoaren hiruan, “Gernika Kutuneko” bazkideak biltzen dira arratsaldeko 15 orduetan estatutuak hautatzeko eta zuzendaritza izendatzeko. Horrela ba 1963. urtean azaroaren 1an São Pauloko “Eusko Alkartasuneko” estatutuak erregistro zibilean egiaztatzen dira, Rúa do Tesouro 20. kalean, São Pauloko 3. ofizioko notaritzan A liburuko bostgarren zenbakian eta 11.097 zenbakiarekin.

Egun honetako fundazioko akta irakurriz (1963-3-3), zuzendaritza horrela geratzen da: Zuzendaria: José Antonio Vergareche; zuzendari ordea: José Ramón Zubizarreta; lehenengo idazkaria; Dora Lucia Alberdi; idazkari ordea: Miguel Zelaya Zubizarreta; Diruzaina: Jon Andoni Vergareche; diruzain ordea: Paben Garaizabal Insasti; kirol zuzendaria: Rafael San José Rodriguez; ondare zuzendaria: Elías Echegoyen Tabar; kontseilu fiskala eta ikerketa batzordea ere izendatuak izan ziren; gainera bazkide hauek parte hartuz: Ignacio Beotegui Inza, Angel Orue Pagazaintundua, Juan Antonio Trasabares Artigas, Luiz Maiztegui Arando, Jesús Alberdi Eguren, José Fernandez, Ricardo Matesanz Aramburu, José Ezquioga Iruvano, Vicente Murua Echeverria, Domingo Agote Arteaga, José Javier Arresegor Gorriaran, Francisco Alaba, Luis María Echegoyen Roitegui, Jorge Beitia Sepúlveda, Amable Martínez-Conde y Elustondo, Antonio Valero Ojeda, Juan José Lizaso Oronoz, Pedro Jayo Bernedo, Juan José Arrue Urtegui eta Victor Lascurain Ariznabarrena.

Esan beharra dago, lehenengo zuzendari ofiziala José Antonio Vergareche hautatzeak bere zergatia duela. Beraz jaiotzez brasildarra delako naiz eta gero Euskadin hezitutakoa (Lekaroz-en) eta euskara duena hau da, euskalduna. Pertsona honengan, bi herriak nolabait batzen dira eta bi kulturen bizitzailea denez, badirudi bideak errazten dituela eta bazkideen Brasilekiko joera baikorrak nabarmentzen dituela, berriz ere euskaltzaletasuna Brasildar kul-

tura eta gizarte giro abegikorrean biziz, indarrak batuz.

Kulturaren adierazgarri nabarmenena hizkuntza da zuzenki, eta “Eusko Alkartasuneko” bazkideek portugalerari jaramon egiten diote hasiera hasieratik. Batzuentzat hirugarren hizkuntza da, besteentzat bigarrena ... Aipatzekoa iruditzen zait José Ramón de Zubizarreta Oteiza zuzendari zela ere portugaleria ohizko hizkintza bezala erabiltzen dela elkartean egin behar diren deietan e.a., ikus: Proposta de inscrição; Empréstimo interno pró séde própria; 1960. urtean Apirilaren hamabosteko eskutitza; 1959. urtean hilteltzaren hamaikakoa; 1962. urtean agorriaren laukoa; 1958. urtean Aberri Eguneako egitaraua; 1959. urtean azaroaren hogeita seiko deialdikoa, azken hauetan oinarritzat bi hizkuntzak hartzen direlarik hain zuzen, hau da: portugaleria eta euskara. Arlo guztietara zabaltzen da ba kultura berriaren hizkuntza nagusia, ez dago hesirik, zabaltasuna eta egoera berrira moldaketaren nahiak, garbi azaltzen dira.

Hau dena miresgarria iruditzen zait batez ere jakinda José Ramón de Zubizarretaren ama hizkuntza ez dela ez euskera eta gutxiago portugaleria. Zuzendari honi, argitasun kulturalak eramaten dio, bi hizkuntza horiek bere lekuan kokatzera hasi berria den elkarte xamur horretan, horretarako bere eskuetan dituen laguntzaz baliaturik. Gaztelera ere erabiltzen da, noski, gehiengoan ama hizkuntza denez, adibidez 1958. urtean maiatzaren lehenengo eguneko eskutitzean, otxotearen arauak azaltzen dira; 1960. urtean hilteltzeko hogeita bederatziko eskutitzean; eta 1960. urtean abenduaren zortzikoan ere e.a ... Eta nola ez, euskara bakarra, zenbait deialdietan, adibidez: Iñaki deunaren jaia ospatzeko, otxoteak eta bazkideek abesten dituzten abestietan.

### **Euskotasunaren baieztapena**

Hizkuntza eremuan, batez ere euskarari, bere nortasun eta dagokion lekua berreskuratu nahi zaio beste bi horien hizkuntza tartean, gurea bait da bakarrik lekuri gabekoa dirudiena, gehiena zaindu behar dena, amets eta xamurtasun gordeleku dena; berea oraindik ez dutena, eduki nahi dutena; zerbait erabili edo menderatzen dutenak euskarazko ikastaroak ere antolatzen hasten dira, itsumen bat bihurtu da, zeren eta, beste kultur eta hizkuntzekin alderatuta gurearen berezitasun aberasgarria nabarmenki agertzen da, eta ... “Eusko Alkartasuneko” bazkideek nortasunean ernalduta daramazte euskal kultur haztarnak kanporatzen dituzte zenbait ekintzen bidez: Jaietan; folkloean; bertsolaritzan; pilotan; musean; musikan; zenbait ezaugarrietan: lauburuan, ongi etorri iragarkian, ikurriñan, Ignacio Beotegui Inzak Gernikatik ekarritako ezurretan, gaur egun zuhaitz bihurtutakoak e.a ....Euskal nortasunaren baieztapenean dabilta inongo oztoporik gabe, naiz eta Euskaditik urrun, bizitzak eta bizitutakoak berezkoak dituen erroak beste lurralde askotarikoan errotu nahian. Hau dena berriro ere estatutuko arauetan idatziz indartzen delarik: “*Art.2º.- A associação tem por objetos.- a)-cultivar as tradições, usos e costumes do povo basco*” ...

Denak onartzen dute José Ramón de Zubizarretaren aitzindaritzak, bere indar eta kementa, naiz eta era askotako bazkideak eduki “Eusko Alkartasunak”, bere estatutuetan agertzen den bezala: beneméritos, honorarios, remidos eta contribuentes.

Gehiengoan oniritziak agintzen du elkarte honetan, ez da mugatua kanpo aldera begiratzerakoan eta ezta ere bere barruko egunerokotasunean. Ongi etorriak izan dira beti elkartearen babesera inguratutakoak eta ehunetik gorako izan dituen bazkideek, oroimenez betetako txoko maitagarritzat dute beraien “saudade” munduan Gernika Kutun “Eusko Alkartasuneko” Euskal etxea.

### **IHARDUERAK**

## Euskal-kultura giroan

Kultura bakoitza gizarteak duen izateko eraren agerpena izaten da, kondairaren zehar bizitutako eta bizitzen diren ohiturak eta, elkarrenganarekiko joerak, nolabait, estandarizatzen ditu, gizarte moeta baten adierazgarria izanaz. Baina bizia pertsonalki eta gizarte bezala bizitzen den ohizko era orokor horretan, zehaztasunak daude, egoera eta istorio askoren ondorioak gordetzen dira herriaren kultur atal askotarikoaren gunean, azken batean horiek denak korapilaturik gure herriko kultura dela esatera eramaten gaituztenak hain zuzen.

Herriko gehiengoak egunerokotasunean bizitzen ditu herriari dagozkion zenbait zehaztasun kulturalak, gauza arrunta bezala, baina zapalkuntza edo aitatiarkeriaren bidez, herri bati, debekatzen zaionean bere izateko era hori, orduan berak duen nortasunaz oharitzen da era nabarmenagoan kultur bizitzaila lasai eta arruntetik kultur ekinkide izatera iraganaz.

Hau da euskal kulturari gertatutakoa, era nabarmen batean, historiaren zehar zenbait egoera larrietan. Beti dirudi bizi izan garela beste kulturenpean, ez dugula ezagutu kultura kidesunaren oreka, herri txikia garelako, boterearen jabegoa ez dugulako eskuratu, gure burujabetasun lorpenaren atzetik gabiltzalako.

Herriak izan eta ditu, kultur arloan burubelari lanean bizitzen direnak gai honetaz bere lanbidea egin dutenak, intelektual profesionalak deritutakoak. Hauen lana beharrezkoa izan da atzerrian zalantzarik gabe, baina batez ere beste kultura lana izan da zuzenki "Eusko Alkartasuneko" elkarteak bizitutakoa, hau da: lekukotasunezko kultura lana. Kultura, euskal izatearen lekukotasun adierazgarri indartsuena bezala agertzen zaigu elkarte honetan. Ez dira intelektual talde bat, ez, dira: euskal lekukotasunaren agertzailak, badirudi atzerrian aurkitu dutela euskal kulturaren alde, lan egiteko deia. Kultura berriak ematen dien askatasun begirunepean, euskal kulturaren indarra eta bakoitzak daraman ikur kulturalaren indartzea gertatzen dira era lasaiean, norberaren txirotasun kulturala, taldean eta elkarte barruan, indartu, argitu eta aberastu egiten den araberan euskal kulturari behar duen kemena emanaz. Hortatik bizitzen ez direnak dira, bakoitzak bere lanbidea du, baina "Eusko Alkartasunaren" ikur nagusia euskal kulturaren izate eta bizi nahiak dira.

Bakoitza, herriari, historiari, lurrari, eta hizkuntzari buruzko galderei, erantzunak ematen saiatzen da. Aldaketak ere gertatzen dira, urruntasunean bizitutako kulturak argitasun gehiago agertzen du eta euskaldun izateko gogo gehiago ere bai askotan, atzerriratze eta atzerri-ratutakoen ikur nabarmena, euskal kulturaren lekukotasuna izanaz.

Hau dena brasildar kultura gunean agertzen den zerbait da, eta, Euskadin bizitutako zenbait egoera diglosikoen argitzea ematen dio kultura berri honekin bizikidetzak. Horrela ba, erdi lotan edo kultura menperatzailearen babesean lasai eta ongi aurkitzen zirenak beste era batetara ikusten hasten dira euskal kulturaren izate nahiaren beharra, eta Euskaditik etortzen diren berriak, euskal kulturaren burrukak eta aurrerapenak nabarmentzen dituztelarik, euskaldun bezala ikusmira gehiago sortzen dute bakoitzarengan; batzuk ez dute inoiz argituko bere nortasun kulturala baina "Eusko Alkartasuna" euskal elkarte eta kulturaren txoko bezala bizitzen dute; bere berezitasuna: ez kultura espainiar eta ez kultura brasildarraren, baizik, euskal kulturaren lekukotasun txokoa dela, da. São Pauloko "Eusko Alkartasuneko" euskal atzerriratuen ezaugarri kulturalak, han elkartzen diren guztiei, nolabaiteko Euskadirekiko lotura apurtezina, euskal kulturaren bidez biziartzten die. Eta euskaldunak ez direnentzat euskal kulturaren lekukotasun leku miresgarria da. Elkarte espainiar edo katalandarrengandik oso ongi bereizten da eta berezitasun honetan jarraitzen eta jarraitu nahi du, egoera hau lorpen atsegingarria bezala bizituz. Esan beharra dago elkarte espainiarrak behin baino gehiagotan bereganatu nahi izan duela "Eusko Alkartasuna" estatu espainolak menperatu gaituen beza-



la, baina elkarteak ez dio inoiz egoera honi amorerik eman, beste herri bat garela argi eta garbi aurkeztu nahi izan dio beti, oso garbi eduki duelako “Eusko Alkartasuneko” zuzendari-tzak euskal izatearen nortasun baliagarria eta buruoneslea.

Orokortasunean bereizgarri bezala agertzen den zerbait da: folklorea. Euskal folkloreak nortasun berezia du, eta elkarteak, dituen baliabideak eremu honetan erabiltzea nahi du, bazkideen profesionaltasuna maila honetan bizitzen saiatzen da: otxotea, txistua, dantzak eta abar guztien bidez: *“Otro aspecto, Mikel es un buen txistulari, ha sido dantzari durante muchos años en Acción Vasca y ha estado al servicio de la causa con gran entusiasmo y completa dedicación. Baila muy bien, conoce los bailes, sabe enseñarlos y domina el txistu. Creo que todo esto puede ser para vuestra labor patriótica de gran interés. Es además euskaldun”*<sup>2</sup>

Bai gai honetan eta besteetan ere Euskal Gobernuko ordezkariak euskal kulturaren hedakuntzan lehenengo bultzatzaileak bezala agertzen dira atzerrian. Eta egintza honen ondorio zuzena Euzko Deya dugu. Aldizkari honek Euzko Amerika'ko Bazkun Alkartasunaren (Confederación Entidades Vasca Americanas C.E.V.A.) berri ematen du baita ere, 1956. urtean Parisen Euskal Biltzar Mundialean sortutako elkarkuntza da beraz, F.E.V.A.rekin (Federación de Entidades Vasca de Argentina) lotua hain zuzen. Erakunde hauek beren boletinak dituzte, baina Euzko Deya hauen oihartzuna ere bada euskal kultur hedakuntza ildoan.

Elkartu beharrak: hitz egin beharra, harreman beharra eta estrategiaren beharrak adierazten ditu; honen ondorio zuzena hitz idatziaren beharra izanaz ahozkatutakoaren osakuntza denez. Egoeraren irakurketak irakurritakoaren idazketara bideratzen du, nolabaiteko hedakuntza hori, hizkien bidez, betirako irakurketa eta idazketa izan dedin euskal historiaren barruan. Lekukotasun kulturala eta kultura profesionala bata bestearen osagai bihurtzen dira, zenbait kasuetan, baten eremua bestearen lurretan sustraituz, bien artean garaieko euskal kulturaren adierazle bikainak gertatzen direlarik. Liburuak, aldizkariak, boletinak, gutunak eta abar argitaratzailea behar dute hedakuntzarako eta eremu honetan EKIN argitaratzailea zutitzen da garaieko lekukotasunez samaturiko argirik disdiratsuenarekin. São Pauloko “Eusko Alkartasuneko” garaietan, Buenos Airesen Av, Belgrano 1144 T.E. 37-1599 kalean kokatua eta Irujo”tar Ander Mirena-ren zuzendaritzapean. *“Sin unas editoriales que dieran a luz esos mismos trabajos, la eficacia de éstos era a todas luces nula ... Entre las editoriales, donde prevalecen las aventuras esporádicas de no mas de cuatro títulos, sobresale con luz propia la Editorial Ekin, la empresa cultural más significativa del exilio vasco, dirigida por Andrés Irujo e Isaac López Mendizabal ... El legado de la Editorial Ekin es el testamento más precioso de una generación que luchó y vivió el exilio por su tierra y por su cultura”*...<sup>3</sup>.

Autobiografiak eta lekukotasunezko liburuak ezezik, gehiengoan balorazioa gertatutakoan egoerei ematen zaien garrantzian oinarritzen da, literatur sorkuntza honetan kondagintza gauzarik garrantzitsuena izanaz bai zenbaki eta nolakotasunari dagokionez. Dena dela lekukotasunezko biografietan aipatu ditezke izen berezi batzuk: José Antonio de Agirre; Jesús de Galíndez; Pedro de Basaldua; Marino Ayerra; Estornes Lasa ...e.a ...

São Pauloko euskal etxeko euskaldunak argitaratzaile honekin badituzte harremanak, harreman zuzenak noski, bi pertsonak burutzen dituzten harremanak dira: Brasildikan José

2. P. Basalduak, J.R. de Zubizarretari; 1960-5-26an idaztitako eskutitzean

3. America y los vascos 1942-1992; Deia diario de Euskadi; XIV fas, 216-218.or.

Ramón de Zubizarretak eta Ekinetik Iruxo'tar Ander Mirenak noski. Bi pertsonai hauen arteko harremanak zehaztasunez beteta daude, bakoitzaren egoera eta nortasunari lotuta. Biak euskal lekukotasunaren maitaleak dira eta euskal kulturaren aurkitzen dute, elkartean, biltzarretan eta munduan zehar euskal nortasunaren kokamen tinkoa. José Ramón de Zubizarreta irakurle amorratua da, ez du alperkeririk handik eta hemendik euskal kulturari loturiko zenbait liburu irakurri eta lagunen artean zabaltzeko, ez du alperkeririk euskal kulturari behar dituen ordu eta ibilaldi emateko lekukotasunaren bidez. Ekin argitarataileak bidalitako zenbait liburu, liburuxka eta eskutitz "Eusko Alkartasunekeengana" iritxiarazten saiatzen da, baina, bazkideek ez dute horrelako zaletasunik agertzen eta askotan bera bakarrik arduratzen da liburu hauetaz bai irakurle bezala eta bai ekonomia aldetik ere. Zer esanik ez dago Iruxo'tar Ander Mirenaren joera aldetik, argitaratu banatu eta saldu irakurle goari da bere biziaren helburua, jendeak ezagutu dezan gure herriaren historia kultura eta izan nahia.

Horrela ba, bi gizaseme hauen arteko harreman kulturala abertzaletasun eta pedagogia batu eta baztertzailearen mami dialektikoan egotzen da, euskal nortasun baieztapenaren pedagogia da. Bakoitzaren abertzaletasunaren eremu, bat batean, argitaratzailea (Ekin) eta elkarte (Eusko Alkartasuna) artekariak izanaz, era honetara bietako bakoitzak dagokion ardura samaturik, baina baita ere, gure herri nortasunaren aberastasuna begirunetzen dutelarik, bakoitzaren eta ordezkari diren beste hainbesteen mugak eta nahiak gaituz, atzerria eta herria bat eginaz.

Bakardadea, zabaltasunean, bizitzen den zerbait da: "... *pues sigo como tu me conociste, sólo en la editorial*"<sup>4</sup>. Gutxi izateak ez ditu ateak ixten eta gutxiagorik euskal kulturari, egin behar zaio, kulturaren abegitasunean herriaren eta bakoitzaren onarpena bizitzen bait da: "*A continuación va una lista de los suscriptores que pudiera servir para desde esa les envíen unas líneas agradeciendo la colaboración o cosa parecida, ya sabe, algo que les haga sentirse importantes aunque con la mayoría no es necesario, y especificando que el pago es por mediación de Euzko Alkartasuna ...*"<sup>5</sup>. Abertzaletasunaren ezaugarriak garbi agertzen dira, aberria berreskuratze lanean dabilta; euskaldunen aberria Euskadi da Sabino Aranek zion bezala. Honen idazlanak liburu baten bilduak daude eta hara eta hona bidaliz dabilta: "*Las [obras completas de Sabino] se remitieron a un lugar seguro para que pudieran estar más cerca de su verdadero objetivo*"<sup>6</sup>. Badago baita ere liburuxka txiki bat katezismo tankerara erabiltzen dena garai hartan, abertzaletasunean girotzeko, Euskadi euskaldunen aberria dela ez dakitenek, irakur eta amore eman dezaten, asmo honekin banatzen dena hain zuzen: "*Y tenemos noticias de que la resistencia vasca está repartiendo a la juventud el "A MI VASCO" del P.Ibero, con un efecto enorme. Poco a poco este libro volverá a tener la virtud de levantar a nuestro pueblo hacia la nacionalidad y hacia su patria ...*"<sup>7</sup>.

Aberriaren kezka batasunari lotuta dago burruka kulturala honetan, elkartzearen beharra ezinbestekoa da, badirudi gure betiko nahi ezin bete dela; jasandako guztiak oraindik ez gaitu eraman etsaiaren aurrean ezberdinak garenok elkartzera, ikasten ari gara, teoriarik nahi-ko garbi dago baina ekintzetan lortugabeko helburua da oraindik. Ez dakit gogo ezaren ondorioa den bakarrik, gizarte askotariko eta eztabaidagarrian bizi gara eta argitasun zehatz

4. Iruxo'tar A.M.ak, J.R. de Zubizarretari 1991-1-8 idatzitako eskutitzean.

5. J.R. de Zubizarretak, Pedro m. Irujori 1960-2-13an idatzitako eskutitzean

6. Iruxo'tar A.M.ak, J.R. de Zubizarretari 1971-1-11an idatzitako eskutitzean

7. Iruxo'tar A.M.ak, J.R. de Zubizarretari 1957-7-24an idatzitako eskutitzean

indartsuaren beharra ere bada nere ustez. Europa batuaren aurrean, nola Euskadi zatitua aurkeztu? *“Pero para mostrar los caminos que hoy sigue el Pueblo Vasco, tuve que irme muy lejos, cuando nuestro pueblo sin conciencia abertzale realizaba una obra de unidad vasca, para terminar en los tres caminos que hoy seguimos los vascos, y cuando tengamos que presentarnos en Europa una, lo harán, porque tienen derecho, la Comunidad Vasca, la Comunidad Navarra, y la Comunidad Pirenaica. Todos hablarán de sus derechos a los que nos quieran oír y los oyentes terminarán diciendo: estos vascos son locos rematados, porque vienen a la Europa unida de los Pueblos, y ellos quieren ser tres al mismo tiempo. No han aprendido la razón histórica, la razón lingüística, la razón social, la razón de nuestras instituciones, la razón de nuestras separaciones, la razón de la sinrazón que nos coloca como para cerrar las puertas de la comunidad europea. Nosotros que tenemos casi todo en común, que nos diferenciamos de los demás, sin duda, como vascos, sin embargo, queremos ir separados ...”*<sup>8</sup>.

Atzerrian, Euskal kulturaren alde dagoen guztia baliagarria da aurrera egiteko, horregatik abertzaletasun aurrerakoia esango nuke nik bizitzen dutela, ez dago muga politikorik herri bat aurrera atera behar da eta danen laguntzarekin egiten den gauza da. Biltzarrak direla, boletín eta aldizkarietako izen emateak, e.a. guztietan parte hartzaileak izatera deituak dira, batasunaren izpiak goxatzen dituzten egoerak dira. *“Yo creo que podría Vd. subscribirse al “Euzko Deya” de aquí en el que aparece detalle del Congreso Mundial Vasco de Paris. También aparece otra revista “Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos”, y ahora “Tierra Vasca”...”*<sup>9</sup>.

Harreman kulturalak direla eta ... badago eskutitz hauetan elkarrenganarekiko begirune eta atseginkortasuna. Tellagorri buruz esan daiteke Joxerramonen sendi giroa ezagutzen duela eta ongi, herriko seme izateak ematen duen zihurtasunaren arnasa da, naiz eta bakoi-tzak alderdi ezberdinetara jo, Tellagorri Acción Nacionalista Vasca-n zegoen eta Joxerramon E.A.J.ean, baina biak argi daukate nondik nora dabiltzan: aberriaren eraikuntzan. Bestea, Iruxo'tar A.M., garai hartan ere jeltxidea zen, baina ... ezin zuen ulertu zergatik Joxerramonek ez zuen abeslari bezala jarraitu eta jarraitzen abertzaletasunaren hoberako. Harreman kulturalak kidetasun eta laguntasunerako bidean ere jarri zituen biak, baina abegikor eta kidetasun berotasunak ez zituen inoiz begiruneari dagozkion jokaerak apurtu, alderantziz baizik: *“Que conste que no le digo esto para torturarlo a vd. y lamento que no continúe en su ambiente pues perder un artista es mucho más que perder una fortuna. Sobre todo un artista patriota es todavía mucho más. Un artista puede hacer por su patria mucho más que cientos de compatriotas. De ahí que nuestro, mi, interés en conocer siempre que no sea para vd. molesto, algo de su verdad”*<sup>10</sup>. Ez da zaila asmatzen zergatik Joxerramon ez den abeslari bezala bizitu, etxagile izanik lanbide honek erraztasun gehiago ekarri dizkiolako bere eguneroko bizitzari. Behar izan(du) zuen garaian izan zituen babesleak eta aukerak baina politika arazoegatik ukatu egin zitzaizkion “rojo separatista” bati ezin izan zizkioten eman merezitako aukera zabalak. Dena dela musika eta duen ahots zoragarria berarekin bizi dira beti eta Euskadiren alde ibili eta erabili izan ditu, berak duen adierazteko eta aurkezteko era bikaina izanaz.

Pedagogia baztertzaillea datza nagusiki “Eusko Alkartasuneko giro kulturean, bazter-

8. Iruxo'tar A.M.ak J.R. de Zubizarretari, 1991-1-8an idatzitako eskutitzean

9. Iruxo'atr A.M.ak, J.R. de Zubizarretari 1956-11-6an idatzitako eskutitzean

10. Iruxo'tar A.M.ak, J.R. de Zubizarretari 1957-3-14an idatzitako eskutitzean

tzailea diot zeren eta baztertutako kultura baten berpizte gogoia dagoelako batetik eta bestetik, baztertua sentitzen den kultura honen lehenengo erantzuna, bera baztertu duten kultura horien bazterteza, nahi duelako; era orokor batetan kultura franquista deritzen dioten guzti horren aurkako hunkipen bat somatzen da: *"A nosotros nos interesa lo político, lo político vasco, antifranquista T.V. es un periódico de doctrina, de formación ..."* <sup>11</sup>

Batzuei jasan ezina egiten zaie Francoren diktatura garaian ezarritako kultura espainiar hori, Euskadiri dagokion kulturaren truke egindako genozidioa denez. Hau horrela dela elkar-terezeko kulturak bezala ikusten dira, bi mundu kulturalak pedagogia trakets eta gaiztoaren ondorioak dira, kulturaren aberastasuna nagusikeripean erabilgarria bihurtzen duena, botere naskagarri baten esku herriaren nortasuna desagertu nahirik. Arnasa hartu nahian dabilta, eta horretarako, kultura brasildarrak eremu askea eskaintzen die kultura ezberdineko bizikidetzaren aurkezpena gertatzen delarik, pedagogia baztertzailetik adostasunez jantzitako bi kulturen arteko giro berezia bituz, bat batean tartean dabilen kultura espainiarraren indar eta kokamena nolabaiteko eremu neutralagoan ezarriz denboraren zehar. Gure herriaren askatasuna aldarrikatzen da indar guztiekin: *"Este es un centro vasco, fundado para sostener el espíritu de independencia del país vasco"* <sup>12</sup>.

Euskadiren buruonesletasuna garbi agertzearen nahia argi dago hasieratik, herri kulturaren nagusitasuna bizitzera iragan nahi da, zapalkuntza itzela jasan ondoren: *"La represión fué intensa y extensa. Se prohíben los símbolos democráticos como la ikurriña o la bandera republicana. Se prohíbe el uso del término "Euskadi". En su primer momento, se prohíbe el uso y la enseñanza del euskera. Se prohíbe la utilización de los nombres vascos que los nuevos funcionarios franquistas se dedicaron a modificar. Los periódicos democráticos son clausurados y sus bienes incautados. Numerosos funcionarios son depurados, acusados por partida doble de rojos y separatistas. Uno de los estamentos más afectados es el de los maestros, siendo sustituidos muchos por falangistas -los conocidos durante años como los "falangistas de Valladolid"- o gentes de probada adhesión al régimen, vehículos de ideologización."* <sup>13</sup>

José Ramón de Zubizarretak jasanezinaren egoera zehatza agertzen du, zapalkuntzaren ikutuak zauri orbandugabearen jasangarritasuna agertzen du bere hizki idatzietan, hunkipen sakona da, gairikotasunaren eremura ere irixten da, goibeldua, itxaronpengabea behar bada, baina ez kemengabea, biziaren zergatia gordetzen duenez era berean: *"Como supone soy un Jelkide al cual la J. ya no le da ni frío ni calor después de las profundamente gráficas enseñanzas de nuestra cruzada, en las que se encenegaron y continúan de la misma manera, los valores representativos de la moral católica. Espero que Euskadi no olvide la lección tan pronto, y libros como el de Ayerra, había que ponerlos como texto de lectura de las escuelas primarias a las universidades, como medida de desintoxicación y vacuna, contra la epidemia que a través de las múltiples Ordenes (cada día inventan alguna) y la ostentación de los suntuosos palacios que van ocupando (soy de Neguri) y los no menos suntuosos edificios que van construyendo, van convirtiendo el pueblo vasco de " un pueblo que canta y baila en las cumbres del Pirineo" en un pueblo sin proyección, maketizado que no canta ni reza pero va a misa, el balance es triste y lo peor es que no se le ve el fin, España es una*

---

11. Iruxo'tar A.M.ak, J.R. de Zubizarretari, 1958-3-10an idatzitako eskutitzean

12. Iruxo'tar A.M.ak, J.R. de Zubizarretari, 1958-3-10an idatzitako eskutitzean

13. Todavía Ayer, DEIA diario de Euskadi, IX fas. 162.or.

*nación de déspotas y de esclavos y atados a ese carro hemos de continuar, siempre con el temor de que tratándose de nuestros derechos y libertad, han de unirse déspotas, esclavos con la fobia de la que los exponentes son elocuentísimos. En fin algún día se les escapará el gatillo a los rusos o a los americanos y se va todo ... En tanto y mientras esto no ocurra seguiremos luchando por Euzkadí por encima de todo. Azke ta garbi, Zure adizkidea”<sup>14</sup>.*

Kemena izango da hemendik aurrera bizitzaren zentzua, ongi kokaturiko kemena hain zuzen, euskararekiko kemen zoragarria. Hizkuntza bait da adierazgailurik garbi eta nabarmena, gure euskararen bidez aitortzen dakigu lurbira osoan gure herriaren berezitasuna, miresgarritasuna sortuz han eta hemen: “... Sar zazute egi au biotz giarrean. Euskera da gure erriaren anima edo gogoa, bizi dalazkoaren arnas eta biotz-taupada, erri berezi bat bezala aitortu nai ez gaituztenentzat ezaugarririk argiena, agirikoena ...”<sup>15</sup>.

Alde guztietatik euskarari eginiko erasoaz ez dira denak jabetzen “Eusko Alkartasuneko” elkartean, baina zuzendaritzan daudenak bai eta horregatik hizkuntzaren bultzatzaileak bihurtzen dira bai pertsonalki eta baita ere talde bezala, euskararen egoera larriari erantzun nahi diote beren eskuetan dauden tresnekin benetan larria bezala somatzen dutenez. Hitz hauek bereak egiten dituzte: “Gure asabak gizadietan zear erabilli ta guri utzi diguten izketa. Gure abizenen itxorkuna adierazten diguna. Gure amaren españetik lenbizi entzun genduan euzkera, ill zorian dagona danok dakigu. (...)1967'ko urtean, ikertu genduzen Euzkadiko lau eskualdeetako erririk geienak, eta itunez ta samiñtasunez beterik jausi giñan kontuan, gure eskuetako atzaparrak geiegi zirela, umiak, 10 urtetik berako umiak euren jolasetan euzkaraz kalian egiten eban erriak kontatzeko. (...) Europa'ko izkuntzarik zaarrena, indoeuropeo izkuntzak eldu baño lenago itz egiten zana, (...) Orain arte bezala jarraitzen badegu, illgo da euzkerea. Ez da naikoa libruak idatzi, ikastolak eregi abesti batzuk gitarrarekin abestu eta ormetan izkiak jartzia. Sendietan, eta kalian egin bear da euzkeraz. Ba-dakigu lan asko egin eta egiten dagozela asko ta asko gure elearen alde, eurentzako gure gogorik onena. Abertzale euren buruak daukezen askok umieri erderaz egiten billatu ditugu. Gezurrezko abertzaletasuna da ori. Urrengoan jarraituko degu gai onetzaz eta bitartean ... ! GORA GURE EUZKERA! Otarkol”<sup>16</sup>.

Euskera ezabatzearen neurria pedagogikoa da, hezkuntzari lotuta dago eta, euskararen erabilera eta irakaskuntza, hezkuntza eremuan, debekatzea da: “En el “Boletín Oficial” del Gobierno Civil de Navarra, del mes de octubre de 1909, apareció el siguiente comunicado: Enterado de que en determinadas escuelas de la provincia, de la zona montañesa, se da la enseñanza de algunas asignaturas en el idioma nativo de sus habitantes, estimo conveniente dirigirme, como lo hago a los maestros, recordándoles que dentro del recinto de la escuela, no cabe la enseñanza de ninguna asignatura, en idioma distinto del español”<sup>17</sup>. Baina neurri hauek ez ziren nahikoak, teoria batetan geratu ez zitezen, pedagogia baztertzailerik eta maltzurak erabiltzen dituen metodologiak eta didaktikak, nahi zuten helburua lortzearen ere, bizi izan zituzten belaunaldiak badira. Eremu honetan garbi agertu zituen hasieratik Sabino Aranak bere aurkako eritzi eta jokaerak, hau izanik Joxerramonen iturri garbientako bat: “Sabino visitó inmediatamente al señor Aresti, presidente de la Diputación y miembro de la

14. J.R. de Zubizarretak, Iruxo'tar A.M.ri 1960-1-13an idatzitako eskutitzean

15. Zure anaia ixilkari

16. Lomas de Zamora'ko “Denak Bat” batzokia; Temperley; Av. Fernandez 130; Argentina

17. El Libertador Vasco Sabino de Arana Goiri; P. de Basaldua; 151 or.

*Junta de Instrucción. Y en la primera reunión presentó una moción que fué aprobada por unanimidad. Su espíritu quedaba reflejado en la circular aparecida en el "Boletín Oficial del 10 de febrero de 1902: [Muy ajena estaba la Junta de Instrucción Pública de Vizcaya, que por sus funciones conoce perfectamente el grado de ilustración del magisterio vizcaíno, de sospechar siquiera que aun existieran en vigor restos de una época en que, sin conocerse el alma infantil, se creía poder forzarla impunemente, ciertos medios instructivos, que sólo por estrabismo intelectual pueden calificarse de este modo, puesto que lo que producen es, en vez de desarrollo y cultura, atrofia y retroceso. Medios de esta clase son el -anillo y la tablilla- de que en ciertos pueblos de la provincia, pocos por fortuna, se sirven algunos maestros más entusiastas que bien aconsejados: -anillo y tablilla- que pasan de mano en mano, acumulando el castigo de todos sobre el que tiene la desgracia de poseerlo el último. Prescindiendo de otras consideraciones, tales medios no se justifican de manera alguna, pues son injustos, inhumanos, degradantes y antipedagógicos]"*<sup>18</sup>.

Aberria eta hizkuntza banaezinak direla eta biak boterearekin zer ikusia dutela ere oso garbi zegoen Sabino Aranarentzat: *"La restauración oficial de los idiomas españoles conseguirán los regionalistas, de fuera a dentro, recibéndola del poder central; la del Euskera sólo podríamos obtener de dentro a fuera, rechazando el poder extranjero. Poco le importaría a España el restablecer oficialmente los idiomas regionales, pues que esto no causaría más que una diferenciación regional; pero la restauración del Euskera produciría una diferenciación nacional, y sería para España un constante peligro"*<sup>19</sup>.

Iturri hauetatik jasotako giro euskaltzaleak, erantzun beharko dio elkarte barruan garaieko euskal giroari, eta horrela gertatzen da, badakite noski ez daudela bakarrik eta laguntza jaso dezaketela ere: *"Naiz euskerari buruz naiz gure aberriari dagokion beste arazoarekiko, agindu dizaidakezu lasai"*<sup>20</sup>.

Euskararen barreiatzea pedagogiaz jantzitako egin beharra behar du izan, ez da ezinezkoa inolaz ere. Zailtasunaren mamua ezarri nahi izan diguten zerbait da, baina ez, hizkuntza guztiak bezala ikas ahal duguna da, ikas eta erabili noski. Mamu ezkor honen aurka jokatu beharrean gaude, baikortasun osoz, hizkuntza menperatzaileen ondorioa besterik ez delako, beti gertatzen den egoera hau: menperatzaileen hizkuntza dela bakarrik erraza eta erabilgarria, gutxiengoena, alderantziz, zaila, baliogabea eta desagertze bidean dagoena hain zuzen. Badakigu eritzi hau zapalkuntzan oinarritzen den pedagogi maltzurra dela, indarkeriaren ondorioa, begirune eta benetazko jakinduriaren aurkakoa: *"Ikasten zailla al da euskera? (...) Beste izkuntza guztiak bezelaxe, ba-du bere lana, baiña ez da ikaseziña. Ontan ere auzoetsaien azpilana garbiki agiri da; etsai azkarrak ikasi etzuenean ikasteziña dala sinistarazi bait-digu"*<sup>21</sup>.

Era berean eremu guztietako adierazgailu aberatsena ere bada, horregatik gizarte mailakatu osoaren lurraldean agertu eta bizi behar dena ere, kulturaz eta jakintzaz jantzi daitekena edozein hizkuntza bezala, horregatik hezkuntza du bere lehenetariko lan beharrezkoena: *"Es presico que el [euskera baste] y es el caso que no sirve más que para hablar de las ope-*

---

18. El Libertador Vasco Sabino de Arana Goiri. P. Basaldua; 152.or.

19. Obras Completas de Arana-Goiritar Sabin; Bizkaitarra Minuta 403.or.

20. Urrestarazu'tar Andonik; J.R. de Zubizarretari, 1971-5-29an idatzitako eskutitzean.

21. Zure Anaia Ixilkari; 15.or.

*raciones agrícolas. En Bizcaya no tenemos ni aún los libros necesarios para completar la educación ...”*<sup>22</sup>.

Beti izan ditu euskerak bera ongi zaindu duten jakintsuak, pertson saiatuak herria eta hizkuntza maitatu dutenak eta ezintasun irudiari aurka egin diotenak. Euskara irakatsi, ikasi eta dagokion lekuan ipini, profesionaltasunez egindako hezkuntzaren bidez behar du izan eguneroko bidea, etengabeko pedagogia baikorraren ildoan. Egoera bakoitzak, naiz eta ezkorra izan, ditu bere une eztabaidagarriak eta badirudi euskaldunok beti jakin dugula han eta hemen, tartetxoak gureganatzen, giro eta egoerak ematen dizkigun baliabideak erabiltzen, mugetan bizitzen eta bat batean bizitzaren indarraz mugak gainditzen, zapaltzaileen begien aurrean: *“PATRIOTISMO.- Es cosa que inunda el alma de grata emoción el ver estos días asistir a cátedra de Euskera a un buen número de Bizkainos, ávidos de aprender su lengua patria (...) Allí van los que hace muchos años dejaron los colegios y las aulas, (...) vienen colectivamente a demostrar también el que distingue a Euskeldun Batzokija, puesto que de los dieciseis alumnos, quince pertenecen a este círculo nacionalista. Y no obstante también a las sociedades españolistas se les pasó aviso de que el Sr. Azkue iba a dar comienzo a un curso especial que ha de terminar en Junio”*<sup>23</sup>.

Botere arazoak zer esana du eginbide honetan, nagusigoaren eremuan indartzen eta bideratzen doan egintza da, nolabaiteko garailetasuna dastatzen den araberan hedatzen doana. Ez da nahikoa bakardadean eta taldetxoetan egitea, boterearen babesa lortu behar da baita ere, gure herria eta gizartea gaindituz, beste herriek bizitzen dituzten egoeren eza-gutzaileak izanaz eta kidetasunaren indar baikorraren dastatzaile bihurtzen garen neurrian, denen indar batuaren babes giroan botere nagusiaren jabe eginaz. Horregatik “Eusko Alkartasune-ko’ kideak Euskal Gobernuak urratzen dituen bideen jarduntzaileak ere badira. *“La Delegación de Suecia en la Unesco, apoyada por las otras delegaciones escandinavas, va a presentar en la próxima Asamblea General de la organización en setiembre, una proposición de defensa de las culturas de los pequeños pueblos del mundo, según los términos del adjunto documento que ha sido preparado por universitarios de los países nórdicos en cuestión. Es evidente el interés que tiene para nosotros que dicha iniciativa sea acogida favorablemente por el mayor número posible de Delegaciones”*<sup>24</sup>.

“Eusko Alkartasunean” euskerazko ikastaroak antolatu nahi dira, ez dakitenentzako, elkartearen ikur nabarmenena denez bai brasildar hizkuntzaren aurrean eta baita ere herriaren izan nahiaren aldetik. Hau eskutitzetan agertzen da, gogo baten adierazmen bezala eta benetazko egintza bezala: *“Y no olvidar el euzkera. Sería bueno que acordaran Vdes. tener alguna clase para los vascos eraldunes. Ello les daría una gran categoría entre los hombres de letras brasileños. Conviene aprovechar esta posición y además ir enseñando a los que no saben algo de la trama de nuestra lengua. Ello nos diferencia de todos y de todo”*<sup>25</sup> *“-para-bens tambien- idem a los profesores y alumnos de euskera”*<sup>26</sup>.

---

22. El Libertador Vasco Sabino de Arana Goiri. P. Basaldua, 144.or.

23. Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin; 559.or.

24. Jesús M. de Leizaola-k, J.R. de Zubizarretari 1962-7-10an idatzitako eskutitzean

25. Iruxo'tar A.M.ak, J.R. de Zubizarretari, 1957-12-7an idatzitako eskutitzean.

26. Iruxo'tar A.M.ak J.R. de Zubizarretari, 1959-5-8an idatzitako eskutitzean.

Euskara berak darama boterea ernalduta bere berezitasunarengan eta berezitasun horretan datza herriaren nortasun berezia, gure bizitzaren berezitasuaren adierazlea denez; eta berezitasun honen boterea gehiago dastatzen da atzerrian, sortzen duen ikusmiragatik, beste kulturetako pertsonak agertzen duten miresgarritasunak boterea ukitzera eramaten gaitu, gure berezitasunaren jabeak orokorrean egitera bideratzen gaitu era argiagoan, altxor baten jabe garenez, gurea dela adieraziz.

Euskarak adierazten duen kulturaren botereak taldean elkartzera eramaten gaitu askotan ikur identifikatzailea izanaz, era berean bere magalean babesa aurkitzen dugularik, babespen honen berotasunean sortzailetasunaren indarra berpizten da zenbait egoeretan, hizkuntza eta euskaldun izatearen botere indarrak mugak gaindituz eta etengabeko sormen jakintsuari eginez: irakaskuntza, ikaskuntza eta hedakuntza pedagogia baikor eta boteretsuaren indar geldiezina bihurtuz. Azken batean muga geografikoak gaindituz euskal gobernuaren laguntza behararen parte hartzaileak izanaz. Horrela bakoitzak duen euskeraren boterea behetik gora eta goitik beherako zabaltasunean bizitzen den boterea bihurtzen da, etengabea, bukaezina, sortzailea, ahalmena duena, bateratzailea, lehena eta geroaren adierazle bikaina.

São Pauloko "Eusko Alkartasuneko" bazkideak guzti honen bizitzaileak dira, neurri batean, euskeraren historian, hizkuntza brasildarrak aukeratutako tartean, berriro ere dialektotasunean boterearen jolas dastatzaileak gertatzen direlarik, hiru hizkuntza (euskara, brasilerara, gaztelera) botereen zere askotarikoaren gunean euskarak bere leku boteretsua duela: "*... Los vascos llegarán al Nuevo Mundo con su cultura singular, entendida como lengua, música tradiciones, formas de vida y costumbres ...Y desde el primer momento se harán notar por ella (...)* Durante el período colonial el euskera o lengua vasca era utilizada, bien en el ámbito familiar, bien como forma de identificación comunitaria (...) Sin embargo, no será hasta el siglo XIX cuando el euskera en América se utiliza para la creación literaria. El momento más importante se produce tras el exilio que sigue a la guerra civil de 1936 (...) Asimismo, se extienden por diferentes países americanos asociaciones y grupos dedicados a la enseñanza y promoción de la lengua vasca que, en los últimos años, cuenta con el apoyo del Gobierno Vasco ..."<sup>27</sup>.

Hizkuntza burrundara honen gunean sortutako erantzun baikorrak badira, baina "Eusko Alkartasunarekin" zer ikusia duen norbait aipatugabe ez dut nahi geratu, nolabaiteko euskerarekiko egintza eta maitasuna agertzen ditu eta: Norbert Tauer Tchéclovaquiarrak da beraz, diplomatiko bezala egon zen Madrilen eta hiri honetako Ateneoan euskara ikasi zuen, gero Euskadiko baserri batean egona baita ere euskara hobetzeraren: "*Ni ez naiz euskalduna sortzez, zu bezala, baina Euskal-erria eta euskera biotz-biotzetik maite ditut.*"<sup>28</sup>. Maiteminduta dago, euskerarekiko grinak, gure hizkuntzak sortzen duen txunditasunaren bidez Euskal Herriko seme bihurtzera, eraman du. Bere pertsonengan somatzen ditut orain arte esandako guztiaren erantzunak, oso nabarmen agertzen den zehaztasuna: euskara berak daraman botere baikor eta indartsua izanaz.

## HARREMANAK

Edukikato harremanetan abertzaletasunaren indarra somatzen da, euskal izatearen gogoia, eta gogo honek, besteeekin loturiko harreman guztiak barreiatzen ditu, herriko semeen

---

27. America y los vascos 1492-1992; Deia XIV fas.

28. Norbert Tauer-ek, J.R. de Zubizarretari, 1981-1-9an idatzitako eskutitzean.



senak jartzen ditu besteekin harremanetan. Nola jardunaldi honetan bakarrak ez garen, lehenengo eta bat azpimarratu nahiko nuke harreman berezia katalandarrekin edukitakoa dela. Sabino Aranak abertzaletasunaren ohartzeaz egindako lan trebean agertzen dira, herri honenganako eta baita besteenganarekiko ere, esker eta begiruneak: *“Sabino y sus compañeros, despidieron a las comisiones catalanas. Porque hemos de advertir que, al igual que meses antes, los catalanes y gallegos prestaron con su presencia un concurso de valor incalculable al pueblo vasco. El historiador Oloriz, escribió ese mismo año, a este respecto: “Importantes sociedades regionalistas del nobilísimo Principado catalán, realizaban también, [como lo hicieron siempre que vieron en peligro nuestras instituciones], actos de fervorosa adhesión, por los cuales merecen vivo reconocimiento; secundábanles los nobles hijos de Galicia que aun recuerdan y anhelan reverdecer sus antiguas glorias”<sup>29</sup>.*

Zeren eta aberria da arazoa, ukatu nahi diguten aberria, bestea ezarri nahirik, estatu espainol eta frantsesaren izenean, Euskadik berezkoa duen eskualdea bizirik egongo ez balitz bezala jokatu nahi dute. Berdin katalandarrekin eta galegardarrekin. Estatu maltzurra- ren jokaerak dira, aitariarkeriz kutxatutako boterearen egintzak; baina euskaldun, katalandar eta galegar zenbait eta zenbaitek argi daukate zein den bere jatorria: *“La Nació es obra de la Naturalesa; els homes naixem amb les característiques de la Nació propia, no per nostra voluntat, sino amb independència d’ella (...) Ni la Patria natural dels catalans, ni la del gallecs, ni la dels fills d’Euzkadi, pot esser l’Estat espanyol. La Patria natural dels catalans, es Catalunya; la dels gallecs, Galicia. La dels fills d’Euzkadi, es Euzkadi. (F.Maspons i i Anglasesell)”<sup>30</sup>.*

Gutxiengoan indarra batuz aurkakoan aurrean indar gehiagorekin agertzea eta izatea beharrezkoa jo zuten bi lurralde hauek 1936ko guda garaiean batez ere, eta nola “Eusko Alkartasunekoak” garai honetakoak ziren baita ere, beti dastatu izan dute nahiko gertutik katalandarren abegikotasun eroso, honek une larrietan zenbait ekimen emanaz bai euskal gobernuari eta bai herri osoari, egintza moeta askoren bidez. Nolabait labor bilduta agertzen diren egintzak “Todavía Ayer”-en irakurtzerakoan, gogoan izan ditut, une honetan transkribatze- rren. “Eusko Alkartasunekoak” Kataluinarekiko duten maitasunak, baduela bere zergatia adie- razi nahian: *“... Desde el comienzo de la guerra, en Cataluña se habían multiplicado los actos de apoyo a Euzkadi. (...) Desde finales de 1936 ya funcionaba en Barcelona una Delegación del Gobierno Vasco que había sido fundada por Manuel de Irujo ... La primera sede de la Delegación de Euzkadi en Cataluña se instala en un piso cedido por la Generalitat,(...) A principios de 1938 había en Barcelona unas cincuenta entidades vascas de todo signo [político, sindical, militar, humanitario]. Todas ellas cuentan con sede y oficinas: P.N.V., Emakume Abertzale Batza, E.L.A, U.G.T., ... en el primer número de Euzkadi que empezó a publicarse allí a fines de 1937. Los vascos contaban, incluso, con una capilla -llamada de los vascos- instalada en Gure Etxea, en la cual se celebraban importantes ceremonias. Cataluña recibió bien a los vascos y su apoyo procedía de todos los sectores”<sup>31</sup>.*

Horrela ba kondairaren bidez etenaldirik sortu gabe São Pauloko Centre Català-rekin harremanak sortzen ditu hasieratik José Ramón de Zubizarretak Pedro de Basalduaren bidez (Euskal Gobernuko ordezkaria). Han gizon hospetsua ezagutu zuen, bai abertzale katalandar bezala baina baita ere diplomazia munduan: Mestre Jou (Parisen, Chileko consula izana) eta

---

29. El Libertador Vasco Sabino de Arana Goiri. Pedro Basaldua, 81.or.

30. Gudari. Revista semanal de Euzko Gudaroztea.3.znb.

31. Todavía Ayer. Deia diario de Euzkadi.9.fs.

kultura munduan (São Pauloko argitaratzaile garrantzitsuenetako bat) liburu dendak zituenez. Gizaseme honen bidez ba eta berarekin lortutako lagun eta kidesunaren bidez, katalandar elkarte eta "Eusko Alkartasunaren arteko harremanak egiaztatzen dira, katalandarren lokalak azken batean gure elkartearantzat topa leku izanaz, gaur eguneko "Gernika Kutun" euskal etxea lortu arte: "El Consell Directiu que ens precedí tingué el gran encert d'iniciar les cordials relacions existents amb la vostra Societat. Nosaltres les recollim amb plena satisfacció i desitgem expressar-vos el nostre ferm propòsit de continuar-les i intensificar-les en el futur." Abertzaletasunez betetako harremanak dira: "Els ideals patriòtics que inspiren les nostres entitats ens identifiquen i les tradicionals simpaties entre els pobles basc i català ens asseguren la continuïtat en les nostres relacions, per això sereu sempre ben rebuts, com fins ara, en el nostre estatge social i esperem poder sovintejar amb vosaltres l'intercanvi patriòtic, cultural i esportiu. Fem vots per la prosperitat de la vostra Euzko Alkartasuna i per la llibertat d'Euzkadi i Catalunya. Vostres"<sup>32</sup>.

Bilera eta jardunaldi interesgarriak ere bizitzen dituzte euskaldunak elkarte honen barruan, adibidez: 1960ko Reuniao de Nacionalidades Europeas-en, Euskadi ordezkatzu "Eusko Alkartasuneko" bazkideek parte hartzen dutelarik. Europar kontextuan kokatu eta kulturen antzikotasuna, berezitasuna, elkarrenganarekiko abegikotasuna eta begiruneak giro demokratikoan girotuak bizituz. Bat batean Nazio hitzak betetzen duen edukia argitzen saiatzen dira, jardunaldi honen eduki edo mami argiena denez: "O "Centro Catalao de São Paulo" organizou um ciclo de conferencias, dedicado a nacionalidade europeias, apresentadas por destacados representantes das entidades que reúnem, em São Paulo, as respectivas coletividades. O ciclo iniciar-se-á com a apresentação de "Euzkadi" e "Estonia" (...) Entendemos por nacionalidade, o fato natural de coletividades humanas de idêntica base cultural, étnica e lingüística, estejam ou não constituídas em Estado político, ou formando parte d'um estado alheio. "O Centro Catalao de São Paulo" sentir-se-á honrado contando com a presença de V.S.a este ciclo de conferencias, ao qual convida-o cordialmente. (A Diretoria; Março de 1960)"<sup>33</sup>.

Burgosko epaiketa dela eta elkarte katalandarrak bere kidesuna agertzen die baita ere Euskadiko lagunei: "Als nostres amics d'Euzkadi. En el moment de fer-se pública la sentència del tribunal de Burgos contra els setze patriotes bascos perseguits, aquest grup de catalans de São Paulo vol manifestar-vos la seva solidaritat davant els vostres sofriments i la seva admiració per la lluita que el poble d'Euzkadi mena per tal d'alliberar-se dels seus opressors, els mateixos del nostre poble,..." Eta abar, eta abar ... Esan beharra dago garai honetan katalandar elkarte, São Pauloko: Rua Condeleheiro Furtado-ko 684, zenbakian zegoela. "Eusko Alkartasuneko" topaleku bihurtu den elkarte katalandar honen adierazgailu bezala 1960-ko azaroan 14ean eginiko biltzarrari buruzko txostenaren hasierak horrela dio: "Estimado compatriota Agur: Na assambléia celebrada no Centro Catalao, no dia 23 de Outubro se aprovam as seguintes determinações; " Nondik ote dator azken batean bi herrialde hauen elkarrenganarekiko kidesun eta miresgarritasun hori? M. Carrasco Formiguera-k zalantza honetatik ateratzen nau berak idatzitakoa irakurri dudanean: elkar ezagutzeak. Ezagutze hau ez da teoriar oinarritzen den zerbait ez, egintzetan baizik, hau da: harreman bizi batetan; begirunez jantzitako harremanak dira, bakoitzak besteari bere nortasunaren bilakabidean lagundu nahi diona eta batak bestearengandik ikasten dakiena, batak bestearen aurkako ezer ez duen harremana da, biak osoki bizi nahirik dabilzanan, historia barruan, elka-

32. Centre Català-k, J.R. de Zubizarretari 1960-1-20an idatzitako gutunean.

33. Centre Català-k, E. Elkartasuneko, 1960ko martxoan eginiko gonbidapenean.

rrenganarekiko kondaira berezi eta miresgarri baten egileak hain zuzen: *“Pero en realidad, confieso que mientras no tuve la suerte de trabar conocimiento y amistad con personalidades del partido nacionalista, y hasta que empecé a ponerme en contacto directo con las masas de patriotas entusiastas no había llegado a enterarme de los aspectos más atractivos de esa personalidad nacional; podía ser más o menos conocedor del País Vasco, pero no tenía idea exacta ni completa de lo que era, de lo que representaba Euzkadi”*<sup>34</sup>.

Harremanak bidea irekitzen diote han hemenka, tarteetatik, herriaren nahia barreiatzeko, etengabeko lana da. Gure elkarteari, euskaldun izateak, sortutako erakundeen bidez, aukera honen atea zabaltzen dizkiolarik: 1960ko azaroan 15an, J.R. de Zubizarretak parte hartzen du Buenos Aires-en eginiko bileran, Jesús M. de Leizaola eta beste zenbait Ameriketako ordezkariekin, “Confederación America de Entidades Vascas”-ek antolatutakoa hain zuzen. Bilera honen txostenean berriro ere Euskal Herriaren eskubideak baieztatzen dira, eremu zabal batean beste herrien eta kulturen babesean. Gaurkotasunez betetako txostena da:

*“PRIMERA.- Reconocida desde los más remotos tiempos la existencia en Europa del Pueblo Vasco, con territorio y población propios, cuyos componentes han dado origen en el Continente Americano a la formación de grandes colectividades de ciudadanos que reconocen esa procedencia, los reunidos proclaman el derecho de dicho pueblo a la libertad política y nacional en su territorio de origen. (...)*

*CUARTA.- Proclamamos la hermandad que nos une con los pueblos de América y nuestra voluntad, de contribuir en todas las situaciones y en todos los terrenos a que esos vínculos de plena hermandad entre los pueblos americanos y el pueblo Vasco, se refuercen, con la mira puesta en el progreso económico y cultural y en atender a la mutua y completa seguridad y a la defensa de la libertad y la democracia así como al servicio de la paz en el mundo, posición que se vería reforzada desde el momento en que los vascos gocen de la libertad nacional en su territorio de origen”*<sup>35</sup>.

Beste aldetik liburuen joan etorriak, irakurketa tartean dela eta, harremanak aberasten doaz, Ekin argitaletxearekin edukitakoak hain zuzen ... eta honen bidez baita ere “Instituto Americano de Estudios Vascos”-ekin (bere administrazioa Ekin-ek zuzendua).

“Eusko Alkartasuneko” bazkidetza gehitzearen gogoak São Paulotik at bideak zeharkatzera eramaten du J. R. de Zubizarreta, zuzenki Rio de Janeiro-ra. Zailtasunak daude tartean, horrela agertzen da behintzat, Arana-k Joxerramoni idatzitako eskutitzean 1959-813an: *“Estimado compatriota: Después de un lapso de tiempo tan prologado sin darle noticias, le dirijo la presente para enviarle las fotografías y el importe de las cuotas del primer semestre del año en curso, de los socios “cariocas” inscritos en Eusko Alkartasuna.(...) Desgraciadamente ocurre un fenómeno bastante común entre nuestra gente, que cuando el individuo se aísla de su comunidad y se encamina por senderos situados al margen de esa comunidad, tengo la impresión que pierde o abandona el espíritu de solidaridad, característica innata de nuestra raza, convirtiéndose en un ser egocéntrico que se lanza ciegamente en busca de su bienestar material ...”*

Tarteka beste euskal etxeekin ditu harremanak, batez ere Argentina eta Chilekoekin, eta nola ez harreman pertsonalak Euskadi beti tartean dagoela, azken hauetan oso bitxiak iruditzen zaizkit Victor Salazar Ruiz jaunarekin edukitakoak (Barakaldarra izatez), bera Rio Claron

---

34. Gudari; revista semanal de Eusko Gudarostea; 3.znb., “Euzkadi Tierra seductora” ar tikuluan

35. Conclusiones que se proponen a la Asamblea para su aprobación definitiva.

eta ez São Paulon bizi zela. Gizon atsegina eta hospetsua, margolaria ere bai, euskal izatearen agertzaila, maila bateko gizona, laguna, baikorra eta "Eusko Alkartasuneko" sortzaileari begirunea eta kidesan lagungarria azaltzen diona: *"He de decirte que con éxito aclamatorio proferí una palestra conferencia ante casi la totalidad de gente más culta e intelectual de ésta ciudad, en reunión cena del Lions Club, presidida por el Prefecto Francisco Scarpa y el presidente de la Cámara Dr. Ruy Casavá. El tema fué el País Vasco su historia y su influencia en las Americas. De este modo creo haber hecho una labor de embajador pulimentando la faz de nuestra raza. (...)"* (Basco portugaleria -B-kin idazten da)<sup>36</sup>. *"Por las manifestaciones que me haces en tu carta veo que estás como todo buen basco preso al aguijón de las circunstancias y te muestras excelente artista como redactor lo que no podía ser de otro modo dadas tus cualidades de artista como tenor y músico por excelencia. Celebro constatarlo como un alma sensible a la vez que fuerte y nuestro orgullo toma vigor al saberte amigo sincero y valeroso"*<sup>37</sup>.

São Paulotik igaro diren senbait euskaldun edo euskal ordezkariak, abegitasun osoz egirik harrera bizi izan dute, etxekotasun giroan onartuak izan dira beti, elkarteko zuzendaritza asko saiatuak iharduera honetan. Jon Bilbao (Getxotarra) ere ongi onartua izan zen bere igaraldian. Dena dela ez dira Brasil-go euskaldunak oso aipatuak izan, baina gutxi izanda era "Eusko Alkartasuneko" bazkideek utzitako arrasto biziak, ez dela nolanhiko kementa behar euskal ihardueran jarraitzeko, agertzen digute era bikainean: *"BASCOS DO BRASIL.- En San Pablo, el Centro Vasco Alkartasuna celebró sus fiestas, con danzas y canciones y concurso de bersolaris -Sorraluze, Asteasu, Chiquito de Lemona- banquete y romería. Un grupo de compatriotas va a construir A.N.V. de São Paulo. Desde Rio Claro el pintor Victor Salazar nos envía un saludo "bem Basco", diciéndonos que se hace lo que se puede, exposiciones de pintura, artículos "bem bascos" y dibujos en la prensa local. Parabens, bascos de São Paulo, parabens Salazar. Aurrera"*<sup>38</sup>.

## POLITIKOTASUNA

Euskaldunen aberria Euskadi da, hau da agertzen dena São Pauloko "Eusko Alkartasuneko" bizi mamian, joan etorri eta harreman guztietan agertzen den oinarritzako arazo da beraz. Herri erakuntzan dabilen pertsonak dira eta horregatik alderdi politikoak ere ukituak hain zuzen, politikan erabiltzen bait dira herri baten ahalmek ere nagusiagoan. Bizi osoa dago beraz politikaz ikutua, hau horrela delako dabilta zenbait euskaldun bere herriaren erakuntzan Euskadin eta Euskaditik at. Batzuk arazo honetaz argi jabetzen dira baina beste batzuk herri kultur usainaren atzetik dabilta gehiegi argitu gabe nondik datorkien euskal nortasun horren beharra, Espainia gora eta bera hitzetik hortzera ahozkatzen dutelarik, bereizketa garbia ezin eginaz.

Sabino Arana izenak bideratzen ditu abertzaletasunak, eta ikuspegi honetatik dabilta zuzendaritzan dauden abertzaleak, E.A.J.-P.N.V.ko jarraikideak bait dira, jokaera politikoa argi daukate ez dira alderdi gabekoak, Euskadiren aldekoak baizik, Sabino Arana agurgarriaren

---

36. V. Salazar; J.R. de Zubizarretari; 1960-2-22an idatzitako eskutitzean.

37. V. Salazar, J.R. de Zubizarretari data gabeko eskutitzean.

38. Tierra Vasca.III.urtea.32.znb.

miresleak: “... *sino la veneración por el maestro Sabino de Arana Goiri, cuyo ejemplo quedó grabado en mi alma para no borrarse jamás*”<sup>39</sup>.

Eta batzurentzat, argitasunak inoiz ez dituelako beren burua eta bihotzak betetzen, argi daukatenak zertan dabilizan, euskal politikaren alde jokatzeko saiatzen dira, herria zaintzen ahalegintzen dira indarrak eta egintzak eznorabidean ibili ez ditezela: “... *Prudencia pues y vigilancia para que nuestras instituciones estén al servicio exclusivo de Euzkadi y para que no se conviertan en instrumentos de ideas ajenas a lo vasco y perturbadoras*”<sup>40</sup>. “Exclusivo” eta “perturbadoras”, hitz hauek, beldurra adierazten dute, askatasun eza, eta zenbaitengan argitasun eza ere bai. Jaio berria den elkarte honetan pertsona eztabaidarriak zuzendaritzapean edo bazkidetzan izateak arrixku handia dela nabaria da.

Beste aldetik betiko leloa ere agertzen da aurreko eskutitz berean, Euskadin bizitzen den Espainia eta Frantziarekiko menpekotasuna hain zuzen, bakoitzarengan daudenez bizitzen diren menpekotasun horiek, menpekotasun honetan euskal izatearen zapalkuntza ezkutatu nahirik: “... *Me parece muy bien la actitud de Vds. en relación a integrar la supuesta Casa de España. De ninguna forma nos conviene mezclar nuestro movimiento y nuestros centros con organizaciones extrañas aún cuando estas fueran de carácter democrático* ...” Hitz hauek politikotasunaren agertzaille nabarmenak dira. Egintza geldi ezinean dabilta, burruka zehatz batetan, Euskadiren askatasunean. Historian zehar gertaturiko kondairaren ildoan berriro ere, lehendik datorkigun burruka da, gaurkoztua eta etorkisunari begira dagoena, baina burruka, herri bat izateko eskubidearen burruka: “*Los vascos luchamos por nuestra libertad, y esperamos luchar hasta que recobremos nuestra libertad después de romper las ataduras de aquellos dos países que nos oprimen...*”<sup>41</sup>.

Jesús de Galindezen desagertze argitu gabeak min egiten die abertzaleei, eredu politikotzat daukaten pertsonai bitxia baita da eskutitz berean agertzen den bezala: “*Distinguido señor; somos el único Centro Vasco del Brasil y con gran dolor la entidad como los individuos que la constituimos hemos visto con verdadera angustia para nuestra formación democrática y vasca, el crimen a que fué sometido nuestro compatriota vasco Jesús de Galíndez (...) pues, en la representación del Gobierno Vasco, era la encarnación de nuestra obra, conseguida con tanto sacrificio con pérdida de vidas y de haciendas...*”

Politika errebindikapen maila honetan beste herriein dabilkiten burrukaren onezpena eta laguntasuna bizi dute baita ere, askatasunaren bila dabilkizaten herriein, sortzen diren aukearak, harremanak hestutzeko, ez dira galdu nahi: “*El señor Adorno, figura destacada en el movimiento de liberación de su patria, pasará unos días en São Paulo y ha sido mi deseo que se ponga en relación contigo (...)* *Cualquier cosa que hagáis os lo agradeceré vivamente* ...”<sup>42</sup>.

Aukera politikoak erabiltzen eta gure herriarentzat politika egoki baten atzetik dabilen garaieko alderdia, E.A.J.-P.N.V. da. Egitura politikoa du eta euskaldun abertzale gehiengoa bere alde duela, egintza politikoa José Antonio Aguirre lehendakari bezala, eten gabeko lanean ari dira, garaieko ahalmen guztiak erabiliz. São Pauloko “Eusko Alkartasunak” indar

---

39. El Libertador Vasco Sabino de Arana Goiri-ren hitzaurrean J. de Agirre-k. P. Basaldua.

40. P. Basaldua, J.R. de Zubizarretari, datarik gabeko idatzitako eskutitzean.

41. J.R. de Zubizarretak, Eusko Alkartasunaren izenean, Senatore Charle O Porter, Oregoneko Estatuokari (J. Galindezen defendatzailea) idatzitako eskutitzean. Data gabekoa. iruxo'tar A.M.ak redaktatutakoa hain zuzen.

42. P. de Basaldua, J.R. de Zubizarretari 1960-2-11an. idatzitako eskutitzean.

politiko honen babesean bizitzen du baita ere bere egin behar politikoa, Euskal Gobernuarekin harreman zuzenak bizituz. Euskal Gobernu aipatu ondoren bidezkoa da jakitea, Amerika 1941. urtetik 1946. urte arte, Gobernuaren leku izan zela. José Antonio de Aguirreren hileta, São Pauloko katedralean ospatu zen “Eusko Alkartasuneko” bazkideen nahiari erantzunaz. Munduko euskaldun guztiak hunkipen handiz bizitu genuen heriotz hura. Hildako lehendakariari, Jesús M. de Leizaolak jarraitu zion eta honek J.R. de Zubizarretari idatzitako eskutitzean agertzen diren zehaztasunak azpimarratu nahi ditut. Aberri hitzak borobiltzen ditu ezaugarri guztiak, aberria zaintzen ari da gobernu eta horretarako lehenengo gauza, Euskadiko seme bezala agertzen duen agiriaren jabe egitea nahi du gobernuak: “*Se ha creado la carta de ciudadanía vasca*”<sup>43</sup> Eta honetarako baldintzak ipintzen ditu. Europa mailan ere herri euskaldun bezala aurkezten dira: “... *porque permanentemente hemos estado en el Movimiento Europeo ...*”. Herriak baditu bere sindikatuak ere: “... *La intervención de las Internacionales sindicales la hemos mantenido nosotros durante años ...*” Eta bat batean laguntza ekonomikoa ere eskatzen du lagunkidetasunaren izenean “*El esfuerzo económico que ahora pedimos a Vds. se dedicará a la organización política del interior ...*”.

Egintza politikoak dira Euskal Gobernuaren iharduerak, eta Euskadi Ordezkaritzak Londresko Ordezkaritzatik J.R. de Zubizarretari idatzitako gutunean garbi agertzen du noren eta zeren aurkako jokaera politikoa dabilzan: “... *para quitar la odiosa dictadura de Franco y sus secuaces ...*”<sup>44</sup> Era berean noren eta zeren alde: “*Estimado compatriota: Don Bartolomé González Lorente, portador de esta carta, es un excelente amigo, socialista madrileño, que tuvo que evadirse de la España franquista (...) me permito recomendárselo con el mayor interés...*”<sup>45</sup> Eta “*Conocí a Busquet en Londres (...) Hagase usted amigo suyo ...*”<sup>46</sup> Baita ere artekari lana, eskatzen dio Euskal Gobernuak Joxerramoni: “*Fío en tus habilidades diplomáticas, así como en tus relaciones para que sean cumplidos satisfactoriamente los deseos del Dr. Leizaola*”<sup>47</sup>. Eta nola ez...! bere aurkezpenaren beharra F.E.V.A.-ko lehenengo biltzarran, Brasigo euskaldunen ordezkari bezala: “*Si tu pudieras desplazarte sería magnífico*”<sup>48</sup> Dei honen erantzuna baiezkota izan zen eta Joxerramon bilera hartan Brasigo ordezkaria izan zen. Azken batean P. Basaldua berak eskertzen dielarik “Eusko Alkartasunekoei”, agertutako abegikotasuna, Brasilen eginiako igaraldian: “... *Ello ha impedido que hasta el momento no te haya expresado la gratitud más viva por las innumerables atenciones recibidas en ésa (...) Difícilmente hallar mayor gentileza (...) He conversado mucho con Tellagorri e Irujo sobre todos vosotros*”<sup>49</sup>.

Iharduera politikoak dira hauek danak, harreman eta egintza pilo bat tartean daudelarik, ukaezinak, aberria izateko debekatua daukan Euskal Herriak, badu bere Gobernu eta sare zabal bat leku guztietara iritxi nahian, ukatzen zaion boterearen sarea da, geldiezina, eta São Pauloko “Eusko Alkartasuneko” bazkideak ere sare politiko honen barruan beren baieztapen politikora bideratuak dira, batzuk argitasunez ohartzen direla eta beste batzuk, nolabaiteko

---

43. Gobierno de Euzkadi, Delegación de París 1962-7-12ko gutuna

44. Londresko Ordezkaritzatik 1962-2-1an.

45. F. Javier de Landaburu-k J.R. de Zubizarretari, 1961-8-17an idatzitako eskutitzean.

46. Pariseko Euskal Gobernutik. M. de Irujo-k J.R. de Zubizarretari; 1962-1-26ko eskutitzean.

47. P. de Basaldua, J.R. de Zubizarretari 1961-2-8an idatzitako eskutitzean.

48. P. Basalduak. J.R. de Zubizarretari 1960-9-24an. idatzitako eskutitzean.

49. P. de Basaldua, J.R. de Zubizarretari, 1960-2-3an idatzitako eskutitzean.

lehenengoan indar boteretsuaren bidez, gutxienez itxurazko neutraltasun lo zorrotik, aterazera bideratuak direla.

## KOKAMENA

### Euskal Etxea

Euskaldunen euskal etxeak, zenbait gauzetan, E.A.J.aren “Batzokia” dakarkit burura, eta gure artean, askotan, bi hitz hauek, nahasi ere egin ditugu elkarrizketetan, denak bata eta bestea erabiltzerakoan, gauza bera dugulako buruan bereiztasun gehiegirik gabe, hau da: euskaldunen etxe baltzua dela, ikurriñaz ornitua: *“Euskaldun Batzokija, por su parte, trabajará cuanto pueda por la causa patria dentro de su esfera de acción ...”*<sup>50</sup> Hitz hauek bereganatu ditezke São Pauloko Euskal etxeak, batez ere bere sortzaileei dagokien arduraz ohar-tzen baldin bagara.

Mundo Berriko erakunde eta elkarteek hamaseigarren mendean dute bere sorrera baina XIX. mendeko bukaeran euskal etxeetako oinarriak egiten dira. Euskal kultur eta batasunaren leku bihurtzen dira, euskara zainduz eta euskal jolasak mantenduz, frontoia hauetariko garrantzitsuenetako bat izanaz. Guda zibilaren ondoren ikutu politikoaren adierazle ere badira, zenbait herbesteratuen etxe izanaz; eta Euskal Gobernuaren ordezkartitzek egindako lana tartean dela, euskal gehiengoan batuketa lortuz, ikuspegi politikoen gainetik: *“Incluso en BRASIL, donde la comunidad vasca es muy pequeña, se creó en Río de Janeiro un LAURAK BAT, en 1881, y en el presente siglo unos cientos de vascos en São Paulo, dedicados sobre todo a la industria del automóvil, se reunieron en los centros EUSKALDUNAK OROK BAT y EUSKO ALKARTASUNA -hoy en día sólo este tiene vida-”*<sup>51</sup>.

São Pauloko euskal etxeak, hasieran, ez zuen ez argirik eta ez urik, baina 15 metroko osinak ur on eta osasuntsuaren aukera ematen zion, gero gerokoak izan ziren eta biak iriti ziren. Dena dela osinaren goiko muturrean dorre borobil bat eraiki zen, beraz urtegia izanaz. Dorre honetan Joxerramonek Gernika-ko zuhaitza margotu zuen eta bera borobilduz inskripzio hau dago: GERNIKA KUTUN EUSKO ETXEA 1959. Aurrerago 1963.urtean “Eusko Alkartasuna” legalizatzerakoan bere jabegoaren bidez, bai etxea eta bai elkarte, lege brasildarraren barruan geratu ziren. Denen amets bat, frontoiaren eraikuntza zen, eta nola ez !... hau ere egin zen: aurreko, ezkerreko eta atzeko ormak dituela. Lanak aurrera zihoazen bitartean ERESIN abesbatzak bere aurkezpenak egiten zituen elkarte kulturaletan, irratian eta elizan. Beraz 1961.ean José Antonio de Aguirreren hiletan, São Pauloko katedranean abestu zuten baita ere; hunkipenez betetako hileta hartan.

Abesbatza honen sorrera Joxerramoni sor zitzaion eta bera izan zen aurrera eramaten saiatu zena, baita ere: Walter Gaus alemandarraren laguntzaz (Donostian bizitutakoa eta Escola Cantorum-eko partaide izana); eta gerotxoago Venezuelatik etorritako José M. Garmendiarekin.

GERNIKA KUTUN-en Gernikako zuhaitzaren jarraitzailea dago Ignacio Beotegui-k Gernikatik ekarritako ezkurak landatuz gero, gaur egun etxeko ate nagusiaren ondoan zutitzen da. Etxeko gela nagusia, Euskadiko oroigarriaz josita dago, ikurriñak bere leku berezia

---

50. Obras Completas de Arana Goiri'tar Sabin; Bizkaitarra; 436.or.

51. America y los Vascos; 274.or.

duelarik, Aguraineko Monserrat Lasanta-k jositakoa da (Hermanas de la Cruz) oina eta goi aldeko lauburua, Jesús de Agirrebeitiak eginak hain zuzen. Etxe barruan: sukaldea, komuna eta gela zabal bat liburutegi, mahai eta aulkiak dituela, daude. Kanpoaldean: igerileku bat, erretegia, frontoia, aldagelak eta atezainaren etxebizitza. Zuhaitzez inguratutik eta zingira eder baten alboan kokaturik dago; Rua Angelo Montecilli 270 zenbakian; Santo Amaro; São Paulo Brasil CEP -04464-040. zuzenbidean hain zuzen.

## IZENA: GERNIKA KUTUN

Gernika hitzak bi alde ditu: batetik, Europako demokraziarik jatorrenetakoa gogoarazten digu eta bestetik sarraskirik gogorrenetakoa. Bata besteari lotuta daude eta biak dituzte gogoan euskal etxekoek, horregatik "kutun" ezaugarria eransten diote. Gernikako bonbardaketaren 25.urtea betetzera doa eta hitz nagusi hau Brasilen ezaguna da: *"Foi este o primeiro parlamento da Europa"* esaten du Geraldo Ferraz-ek bere -Guernica Poema Vozes do Quadro de Picasso- liburuan. Euskadiko historia demokratikoaren ezagutzaileak dira brasildarrak, era berean ohartezina egiten zaie 1937 apirilko 26an eginiko bobardaketa. Ikur bat da Gernika, Euskadiko bizia eta historiaren ikur agiria eta ezaguna, nahia eta ezinaren adierazgailu, kemenaren agerleku ahaztezina eta era berean itxaropentsua, bere jarraikileak han eta hemen sortzen dira. Brasilo gizarte askotarikoaren gunean ikur eta adierazgailu nabarmenena, nortzu diran euskaldunak, galdetzen dutenentzako. Historiak berriro ere bere bilakabidean munduan zehar dakarkien izena da, Geraldo Ferraz-ek bere olerkietan dabilkien edukia, garrasi nabarmena. Izen honen hunkipen babesean São Pauloko euskal etxekoek aurkitzen dute esan behar guztia: *"JA DUROU DEMAIS O TEU SILENCIO GUERNICA MASSACRADA! Sobre toso os continentes a palavra / deve agora percorrer o aniversário/ dessa brutalidade inominável,/ "o ato mais selvagem/ que a história registrou", em 26 de abril de 37/ maculando de sangue para sempre/ a verdura indefensa da paisagem"*<sup>52</sup>.

"Kutun" ezaugarriak barrukotasuna ematen dio, hurkotasuna, altxor baten ezaugarria dirudi, euskaldun izatearen ikur argia. Ez dago zalantzarik izen egokia dela, baina, gogokoa, maite dutena, ongi aurkeztuak somatzen dira hizki hauetan baita ere eta historiak beharrezkoa duen xamurtasuna "kutun" hitzak ematen dio, historia bera orokortasunean laztanduz. Hizkuntza bait da ongi kokatzen dakiena gure herriko kondaira, gure hizkuntza prehistorikoa, eta era berean gaurkotasunez jantzitakoa: *"CONCLUSÃO. Os bascos nao conhecem a sua origem porque vieram dos segredos da pre-historia, porém sabem que são herdeiros de uma das linguas mais antigas do mundo, nao possuída por outro povo atual e guarda no seu idioma, o euskera, os tesoros propios do seu antigo patrimonio. O basco é um residuo peleonológico que resiste à ação do tempo com uma firmeza incomparável; é uma luz que permite ao glotólogo divisar e aprender o sentido da expressao humana em sua forma muito primitiva.(...) São também as seguintes as palavras de Menendez Pidal: "Nao há documento histórico mais venerável do que o euskera; éste documento vivo esta lingua conservada sobre este território, desde época incalculável, quem sabe se anterior ao clima e ao período geológico atuais". Em conclusão, repetimos as palavras do iluminado glotólogo Schuchardt: "Bascos vós sois antigos, porém nao belhos! Eu vos saúdo como quem saúda a aurora!"*<sup>53</sup>. Jorge Bertolaso glotologoaren hitzak dira eta berarekin, Benantxio Rekalde eta Joxerramon

52. Gernika Poema Vozes do Quadro de Picasso; Geraldo Ferraz.

53. O Que E Metodo Paulo Freire; Carlos Rodriguez Brandao; 17.or.



egonak dira, eta gizon honen txunditasuna euskeraz hitz egiten entzuterakoan, ez dute inoiz ahaztuko.

## GIROA

São Pauloko euskal-etxearen sorrera brasildar gizarte askotarikoaren gunean kokatzen den eraikintza da. Hau horrela izanaz 1960. urtean gertatzen da Brasilen brasildar kultur astinketa lurrikaratsua, iparraldeko irakasle talde batek zuzendua, hauetariko batzuk “Movimento de Cultura Popular”-eko partaideak direlarik. Askatasun usaina zabaltzen da. Irakaskuntza eta ikaskuntzarentzat egoera berri baten aurrean gaude. Herria eta kulturaren berrikuste berri baten aurrean.

“... *pela única vez alguma educação no Brasil foi criativa e sonhou que poderia servir para libertar o homem, mais do que, apenas, para ensiná-lo, torná-lo “doméstico”*.”<sup>54</sup> Gizakia, historia, lana, hezkuntza eta kultura lotzen dituen lokarria askatasunean txirikordatua behar luke izan; hau da batez ere egoera berri honen ikuspegi azpimarragarriena. Iraultza kultural honek badu bere aitzindaria: Paulo Freire da, bere alfabetatze metodoaren ohiartzuna mundu osoan zabaldua gaur egun, eta metodo honek edukitako arrakastagatik, militarrek Brasildik herbesteratu zuten 1964. urtean. Paulo Freirek 75 urte beteko ditu Irailan 19an.; Recife-en (Pernambu-co) jaioa, Brasilgo eta zuzenki iparraldeko txirotasunaren ezagutzailea, eta gaur egun mundu osoko hiritarra. Zuzenbide ikasketak egin zituen baina nagusien alfabetatze munduan ibilia, egintza honen ondorioa bere metodolgia izanaz; gobernu militarrek atxilotu eta herbesteratu ondoren 1964an: Bolivia, Chile, EE.BB. eta Ginebran bizitua; 1970 hamarkadan, Afrikako zenbait Europako kolonizaziotik askatutako herri berrien aholkularia izan zen; 1979an itzultzen da berriro Brasilera. Liburu asko idatzi ditu 18 hizkuntzetan itzultitakoak; 20 unibertsitate baino gehiagok “Doctor honoris Causa” izendatua. São Pauloko hezkuntza idazkaritzako zuzendaria izana 1989an. Bost seme-alaba ditu bere lehenengo emaztearekin (Elza), aitona ere bada eta bigarren aldiz ezkondua, alargundu ondoren, bere ikasle izandako Ana Maria-rekin, alarguna hau ere.

Eta galdera da: Non dago ba bere metodologiaren gakoa?, herriak duen hitzaren berreskuratzean, dago; denok gara jakintzaren edukitzaileak, denen artean egin behar den eraikintzan gabiltza, ez dago jakintsu eta ezjakintsu orokorrik, bata bestearen arteko harremanetan eraikitzen da herri kultura: “*Paulo Freire pensou que um método de educação construído em cima da ideia de um diálogo entre educador e educando, onde há sempre partes de cada um no outro, não poderia começar com o educador trazendo pronto, do seu mundo, do seu saber, o seu -método- e o -material- da -fala- dele.*”<sup>55</sup>.

Beraz ez da metodo berri bat esango nuke nik, herria bizitzeko era berri bat baizik eta mundua aztertzeko ikuspegi itzaropentsua. Herria eta kulturari buruzko sinesmen berria. Burrundara kultural honen garaian sortzen da São Pauloko euskal etxea, eta giroari begira esan desakegu astinketa beraren jarraitzaileak direla Gernika Kutun-eko sortzaileak; alkartasunean dabilta herri askapen egintza zehatzean Euskadiko historiaren eraikuntza bezala bizirik, hau da, zapaltzailerik eta zapaldurik ez dagoen herri kultura eraikuntzan, menperatzaileak menperatuari bere hitz zapaltzailea ezartzen ez dion gizartearen eraikuntzan. Bi herriak dabilta zerbaiten aurka eta zerbaiten izenean biak askatasun bidean eta bilakabide-

---

55. O Que E Metodo Paulo Freire; Carlos Rodriguez Brandoa; 21.or.

an, herrimina bizirik, egintzaz eraikitzen den herri zahar berrizatuaren ildoan. Utopia berean gabiltza eta horregatik iraultza kultural honen haztarnen atzetik ibilia naiz São Paulon bizituta-ko zortzi urtetan 1982.urtetik 1990 arte. Paulo Freireren metodologia ezagutu eta bizi nituen Colombian (1972-74) baina gero Brasilek bera pertsonalki ezagutzeko aukera eman dit, hur-bildik bititu izan ditut bai unibertsitatean eta bai nere eta bere etxean, pedagogia zuzen honen egunerokotasunak. Berari sor diot, idazten dudanean somatzen dudan atsegintasuna, idazketaren bentura baikorraren poza.

Horregatik, nere hitz idatzien joan etorrien bidez, São Paulon bizitutako zenbait ikuspe-gien adierazlea naiz, han idatzitako lantxo eta txostenetan: "ARGIA" aldizkarian argitaratuta-koak ["Sao Paulo eskerga honetatik" (1206zn.26-27or.); "Paulo Freire-ren irakaskintza giroan" (1035zn.18-19or.); "Brasilgo indioak azkenekoetan gizarteak hilik asimilatzen ditu" (1036 zn.); "Indioen artean 170 hizkuntzatik gora daude" (1041zn.28-29or.); "Paulo Freire Argiarako mintzo" (1067zn.); "Burujabetasuna indioen batasunaren oinarri eta helburu" (1088zn. 18or.); "Mujer vasca imagen y realidad eta erlijioa" (1093zn.36or.); "Ikasleen grebak direla eta" (1142zn.36or.); "Sao Pauloko Euskaldunak" (1155zn.42-43or.); "Emakumea askeago da gizo-nak parte gehiago hartzen badu" (1162zn.20-21or.); "Euskara aseptikoa" (1179zn.62or.).] "IS-LIK" pedagogia aldizkariak argitaratukoak ["Hezkuntza Brasilen" (6.alea 24-28or.); "Zer da pedagogia" (8.alea 40-42or.); "Andereñoa" (9.alea 42-44or.); "Paulo Freireren irakaskintza giroan" (10.alea 44-47or.)] "Gainditzen" TXOSTENAK, emakumeari buruzko ikerketarako min-tegiak argitaratua: *Mujer Vasca Imagen y Realidad*, liburu irakurketaren giroan bururatu eta bizi izan ditudanak. "Paulo Freire Helduen Alfabetatze" idazkitxo ELE-k argitaratua (127-132or.). Azken batean bere liburu "A importancia do ato de ler" euskerara itzuliz, gero hemen U.E.U-k argitaratua: "Irakurtzeko Egintzaren Garrantzia; elkar osatzen duten hiru idazkitan. " *Que dizer aos leitores e leitoras possiveis deste livro, agora, para honra minha, em Basco? Uma coisa apenas: que espero, com ele, tao apaixonadamente escrito, testemunhar a minha certeza da importancia da identidade cultural das classes sociais dominadas e das culturas, na sua luta em busca da sua libertação. A busca da identidade cultural já é a propria luta pela liberdade. Paulo Freire. Sao Paulo, 23-2-88*<sup>56</sup>.

## Gaur egun

Gernika Kutuneko egun beteenak joan dira eta gaur egun, batzuk Euskadira itzuli gare-lako, beste batzuk hil direlako eta besteak beste lekuetara nahiago dutelako joan, gutxi dira euskal etxeaz arduratzen direnak. Belaunaldi eta denbora berriak, berriro ere kondairaren ibil-bidean zehar, aukera berriak aurkezten dizkigu Gernika Kutun zutik jarraitzea nahi dugunoi. Aukera hau: pilota da; euskal pilota: "... Quizá un elemento común a las comunidades del Nuevo Mundo es el frontón ..." <sup>57</sup>. Esku pilota da hain zuzen São Paulok eskaintzen digun aukera honetako bat, badago gazte talde bat hontan dabilena, Herald Biscayzacu-k zuzen-dutakoa, beraz jaiotzez Uruguayoa da, naiz eta aita euskalduna izan. Hogeita bi urte dara-mazki Brasilen eta pelotazale amorratua da, eta bere helburua, talde on bat esku-pilotan edu-kitzea da. Hau nahiko berezia da beraz, zeren eta eskuz pilotan ibiltzea, ea baztertuta dago Ameriketako daramakien zailtasunagatik, nahiago izaten dute orokorrean, tresna baten bidez ibili, baina São Pauloko berezitasuna hau da pilota eremuan gaur egun eta gazte jendearekin gainera.

56. Irakurtzeko Egintzaren Garrantzia. Eskaintza.

57. America y los Vascos; XIV fas. 211.or.

Honetarako Gernika Kutun-eko frontoia erabiltzen dute, naiz eta berrikuntzaren beharra eduki. Gaur egun honetarako eskatu zaio Eusko Jaurlaritzari laguntza: *“Lo que anhelamos a nivel competitivo es poder entrenar y jugar en el frontón del centro vasco de San Pablo, pero esto no es posible por las condiciones en que se encuentra ...”* Euskal pilotaren jarraipenean Euskadiren hedakuntza bizi nahi da gure kulturaren bidez, eta ez bakarrik hedakuntza baizik eta Gernika Kutunen jarraipena bereziki ere: *“Contamos en este momento con la ayuda financiera que la F.I.P.V. pueda concedernos como medio inmediato de viabilizar nuestras aspiraciones de competición, divulgación de nuestro querido deporte, divulgación de la grandeza de Euzkalerria en todos sus aspectos, y para que todo esto sea posible, mantener nuestro Euzko Alkartasuna de San Pablo no sólo vivo como también mejorado en sus instalaciones y en el número de socios y asociados. Que lo merece por ser un legado muy importante que nos han dejado un grupo de abnegados vascos que lo fundaron y lo mantuvieron hasta hoy.”*<sup>58</sup>.

Honi erantsi behar zaio saski pilotari buruzko zaletuak dabilzkiten egintzak, eremu honetan Alfredo Correia Soeiro, Brasilgo Euskal Pilota elkarteke zuzendaria dugu, aitzindari. Hauek ere Gernika Kutun-eko frontoiaren beharrea aurkitzen dira, zaletuen zerbakia eta entrenalekuak gehitzearen: *“Estamos acompañando, juntamente com a Soraya e o Paulo, os esforços que a F.I.P.V. e o Sr. Zubizarreta e sua esposa Arantxa tem tido junto ao Governo Basco para conseguir verbas para reforma da cancha do Centro Vasco Eusko Alkartasuna de São Paulo ...”*<sup>59</sup>. Bi izen azpimarratu nahi nituzke: Soraya Cuellas, brasildarra, São Pauloko tenislari hospetsua, gaur egun saski pilota zalea, lehenengo emakumea arlo honetan hain zuzen. Eta bestea Elias Echegoyen Tabar, naparra Xabierrekoa, gaur egun “Eusko Alkartasuneko” idazkaria, bera izanaz artekari trebea talde pelotazale honen eta Gernika Kutuneko bazkideen artean. Eusko Jaurlaritzarekin harreman zuzenak dituena. Gernika Kutuneko jarraipen egintzetan arduradun nagusienetarikoa bat, hara eta hona dabilena hirian, “Eusko Alkartasunaren” jarraipenaren alde lanean, Jon Lizarzaburu lehendakari zapean, hau Juanito Lizarzaburu fundatzailearen semea izanaz, belaunaldi berrikoa eta gaurkorako egokitu-tua. Elias Echegoyen Tabar: “Eusko Alkartasuna de São Paulo” el hogar de un grupo de vascos en el Brasil, Marzo 1994; -Eusko etxeak de Estados Unidos de Norteamérica- aldizkarian ateratako artikulua, egilea da. Jhon Robert Mills Diaz de Mendibilek itzultitakoa, São Paulo 1994ko apirilean. Baita ere: “Historia de la Pelota Vasca en las Américas” (Carmelo Urza; edit. Elkar; University of Nevada Reno) liburuan, “El Centro Vasco, Eusko Alkartasuna de São Paulo” artikulua, egilea, Brasili dagokion zatian hain zuzen.

Horrela ba, berriro ere bi herrien kulturen arteko harreman baikorraren lurra gabiltza, ez da gauek goizera sortutakoa euskal pilotak kondaira berezia du Brasilgo kirol eremuan, eta Alfredo Correia Soeiro-k dionez “Historia de la Pelota Vasca en las Américas”en, euskal pilotaren ohorez eta maitasunez idatzitako txostenean: *“Euskal pilotak XX mendean 1945, urte arte (apustu jokoak debekatu ziren) bilakaera handia bizi izan zuen. São Paulon lau frontoiz zeuden eta Rio de Janeiro-n, saski pilota jokatzen zen, pelotari brasildarrak zeuden eta euskal pilotarekin batera profesional onak ziren. Zebait elkarteek ere frontoiak eraikitzen zituzten bazkideentzat, bereziki 1928an São Pauloko “Club Atlético Paulistano-k 30m-ko frontoia egin zuen. Marcelo Fernandez-ek (brasildarra) saski pilotan profesionala, elkarte honetan, saski pilota jokatzearen alde egin zuen, han bildurik (debeku ondoren) ex-profesionalak, era honetara “Club Atlético Paulistano” Brasilgo euskal pilotaren iraupen leku bihurtuz. Frontoi txikia*

58. H. Biscayzacu-k; J. Iraundegui-ri (F.I.P.V.) Sao Paulotik 1995-6-21an, idatzitako eskutitzean

59. A. Correia Soeiro-k J. Iraundegui-ri (F.I.P.V.) Sao Paulotik 1996-2-10an idatzitako eskutitzean

zenez ariketak 55cm.saskiekin eta pilota hilekin egiten zituzten” Gaur egun jarraikileek dituzte eta palaz ere jokatzeko dute; lehiaketa mundialetan ere parte hartu izan dute. Dena dela neurri internazionalerako frontoiaren beharra dute eta horregatik “Gernika Kutun”-eko frontoiaren berrikuntzaren alde daude, bat batean ez bakarrik beren elkartekoak baizik nahi duten guztiak, partaideak izan ditezkelako euskal pilota kirolaren hedakuntzan.

Eusko Alkartasuneko bazkideak ikutuak sentitu dira ikuspegi honen aurrean eta Gernika Kutunek gertaera horien jasotzaile eta babestzaile izan nahi du. Euskal kulturaren dabilan brasildarrak dira, etxeratu beharko ditugu noski! nondik nora doan euskal pilota jakin nahi badugu, dagozkien lekuan, euskal kulturaren hesparruan, kokatzen ditugularik. Gernika Kutuneko haztarnetan aurkituko dituzte pilota kirolaren zenbait zati, eta bere frontoian zenbait euskaldunen izardi, lehia eta jai giroa, euskaldunen jai eta alaitasunak zer ikusi handia duenez pilota jokaldiarekin. Alfredo Correia Soeiro-k esaten duen bezala: ez ahanzi Gernika kutuneko etorkisuna bere frontoian dagoela.

Gaur egun José Ramón de Zubizarreta, Brasilgo “Eusko Alkartasune-ko” ordezkaria da Euskadin, Eusko Jaurlaritzarekin dauden harremanetan. Gernika Kutun, euskal etxea legeztapen, barruan kokaturik dago Eusko Jaurlaritzan eta lege honen egin behar eta eskubide guztien partaidea da. Une honetan frontoiaren berriztapenerako diru laguntzaren eskaria egina dago. Beti aurkitu izan dugu harrera ezin hobea Eusko Jaurlaritzan, begirune osoa.

Horrela ba, Gernika Kutuneko etorkisuna Euskadiri zeharo lotuta dago, berriro ere hasierara itzuliz, baina gaur egun legeztapen babes giroan, gure herriak lortutako ahalmen politikoaren bidez, eta bat batean kultur Brasildar gune gunean, bi herriak harreman korapilatu askaezina bizitzen dutelarik.

## BIBLIOGRAFIA

- AMERIKA ETA EUSKALDUNAK - AMERICA Y LOS VASCOS.- Presencia vasca en América-Euskal presentzia Ameriketara.- Eusko Jaurlaritz-Gobierno Vasco.- Kultur saila-Departamento de Cultura.
- AMERICA Y LOS VASCOS 1492-1992.- DEIA X-XVI faxikuluak.- America eta Euskaldunak-America y los vascos.- Eusko Jaurlaritz-Gobierno Vasco.- Kultur saila-Departamento de Cultura.
- EUSKALDUNAK MUNDUAN, CONSTRUYENDO EL FUTURO.- Eusko Jaurlaritz-Gobierno Vasco.- Lehendakaritz-Presidencia- Vitoria-Gasteiz,1995.(Araba)
- LA EMIGRACION VASCA.- Pierre Lhande,S.J.; Ignacio Basurko Berroak itzulia.- Edit.Auñamendi.- Donostia. (Gipuzkoa)
- TODAVIA AYER-DEIA diario de Euskadi.- EUSKAL TELEBISTA.-Depósito legal: BI-403-93.- (I-XVIII faxikuluak).
- OBRAS COMPLETAS DE ARANA-GOIRI'TAR SABIN.- Edit.Sabindar-BATZA.- Villa Izarra-Beyris.- Bayona.- Luca 2.223, Buenos Aires
- EL LIBERTADOR VASCO SABINO DE ARANA GOIRI.- Pedro de Basaldua.- Edit.Ekin.- Buenos Aires 1953.
- ESTAMPAS DE LA GUERRA.- Jesús de Galindez.- Edit.Ekin.- Buenos Aires 1951.
- A MI VASCO.- Evangelista de Ibéro. Edit. Ekin. Buenos Aires 1957.
- ZURE ANAIA IXILKARI.- Edit. Ekin.- Buenos Aires.
- GUDARI; Revista semanal de Euzko-Gudaroztea.- Imprime: Estudios Gráficos.- Depósito legal BI-589-86.
- EUSKO LURRA 1959.- Lazkaoko Beneditarren Liburutegia. Lazkao (Gipuzkoa)

EUZKO DEYA 1957-58.- Lazkaoko Beneditarren liburutegia. Lazkao (Gipuzkoa)

GUERNICA POEMA VOZES DO QUADRO DE PICASSO.- Geraldo Ferraz.- Massao Ohno Editora.- R.Vergueiro 688.- Sao Paulo-Brasil 1962.- "Abertzaletasu-naren Agiritegia".- Artea-Arratia (Bizkaia).

A LINGUA BASCA separata da “Revista do Instituto Histórico e Geográfico de Sao Paulo” vol.- LI-. Jorge Bertolaso Stella 1954.- “Abertzaletasunaren Agiritegia”. Artea-Arratia (Bizkaia).

PEDAGOGIA DA ESPERANÇA, um reencontro com a Pedagogia do oprimido.- Paulo Freire.- Edit.Paz Terra S.A. Brasil 1992.

O QUE E METODO PAULO FREIRE.- Carlos Rodrigues Brandao.- Edit. Brasiliense S.A. 1983.- Sao Paulo. Brasil.

IRAKURTZEKO EGINTZAREN GARRANTZIA, elkar osatzen duten hiru idazkitan.- Paulo Freire.- Itzultzailea: Arantxa Ugartetxea.- Udako Euskal Unibertsitatea.- Lege-gordailua: BI-1140-90.- Inprimategia: Boan S.A. Bilbo (Bizkaia)